



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, DEKRETU-PROIEKTU BATI ALDEZ AURREKO ONARPENA EMATEN DIONA. HORREN BIDEZ, VALDEREJO (ES2110001) ETA SOBRÓN (ES2110002) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATZEN DIRA, HORIEK KONTSERBATZEKO HELBURU ETA NEURRIAK ONARTZEN DIRA ETA VALDEREJO-ARCENAKO MENDILERROA (ES0000245) HEGAZTIENTZAKO BBEA KONTSERBATZEKO HELBURU ETA NEURRIAK ERE ONARTZEN DIRA.

2012ko abenduren 6ko Aginduaren bitartez, Mediterraneoko eskualde biogeografikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) izendatzeko, eta KBEen eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen kontserbazio-neurriak onartzeko Dekretua onesteko espedientea hastea erabaki zen. Eremu horien artean, Valderejo (BGL) ES2110001 eta Sobrón ES2110002 ez ezik, Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEa zeuden.

Valderejo eta Sobrón eremuak eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEak osatzen duten lurralde-eremuak ez ezik, Natura 2000 Sareko Naturagune Babestu gisako katalogazio bikoitzak ere biltzen du Valderejo eremuko Parke Naturala. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira, eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplika daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute. Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa eremuak duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Parke Naturalen kasuan, hiru tipologiak arautzen dituen dokumentu bakarraren legeaurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Plan (hemendik aurrera, NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta EKPZ batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, Naturagune Babestuaren (NB) figura desberdinen arau erregulatzailak eta plangintza-mekanismoak baliagarriak izan daitezke Naturagune Babestuaren (NB) tipologia desberdinen premiak betetzeko, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia guztien deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKPZrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokienez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei eta Hegaztientzako BBEari dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua lehen paragrafoa) eta



neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAn argitaratu behar izaten dira beti.

Gaur egun, koordinazio hori ez da posible izan. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzapena atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKPZ dokumentua EAEko Natura Kontserbazeko Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso beharko luke: batetik, Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluaekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Valderejo Parke Naturalaren Erabiltzeko eta Erabiltzeko eta Kudeatzeko Gida Plana.

Dekretuaren eduki eta onartze-prozedurari dagokienez, adierazi beharra dago prozedura hasi ondoren martxoaren 11ko 1/2010 Legeak eta urriaren 10eko 2/2013 Legeak Natura 2000 Sareari dagozkion lege-aldaketa batzuk eragin dituztela Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean; horren guztiaren ondorioz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazeko Legearen testu bategina sortu da; horrela, behar bezala betetzen dira bertan lege horiek.

Hortaz, Dekretu honen helburua Valderejo eta Sobrón Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eta Habitat Zuzentarauaren 6. artikulua horrelako KBE eta Hegaztientzako BBEetarako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea da; beraz, 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroko utzi da, azken xedapenetan bigarreanean jasotakoarekin bat.

Hala ere, Natura 2000 Sareko hiru eremu eremu geografiko batean elkartzen direnez, honako hau adierazi beharra dago: Valderejo KBEa, Sobrón KBEa eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEa dira guztira, eta azken horrek lehenengo biak bildu eta beste lurralde batzuk integratzen ditu. Eremu horien eta Natura 2000 Sarearen kudeaketa koherenteagoa izateko, logikoa dirudi babes-figura horiek guztiak naturagune babestu bakar batean bildu beharra. Horrela, horiek guztiek Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEari dagozkion mugak izango dituzte, Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) izendapena emanda. Hori lortzeko, mugak zabaldu egin behar dira, bai Valderejo KBEarenak, bai Sobrón KBEarenak; horrela, gaur egun Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEak biltzen duen eremuarekin bat egingo dute, eta bi KBE horiek eta Hegaztientzako BBEa biltzen dituen eremu administratibo berria sortuko da. Horrek ekarriko du aurreko izendapenak desegin eta elkarrekin biltzea Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) izendapenean.

Guztiz eraginkorra izateko, formalki, Natura 2000 Sareko Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBE (ES2110024) berriak eskatzen du, KBEa izateagatik, Europako Batzordeak Erabaki bidez eta alde aurretik baliozkotzea. Horregatik, mugaketaren kartografiak jatorrizko BGLen eta Hegaztientzako BBEaren mugaketak ez

ezik, KBE-Hegaztientzako BBE berriarenak ere jasotzen ditu. Mugaketa berriak Dekretuaren Azken Xedapenetan Hirugarrenean jasotako baldintzak bete beharko ditu. Hala ere, KBEaren mugaketa berria geroago indarrean jartzeak ez du inolako ondoriorik kasu honetan; izan ere, bi KBEen eta 2000an izendatu zen Hegaztientzako BBEaren mugak eta araudi eta helburuak bateratu direnez gero, dokumentu bakar batek finkatzen dituen araudi eta helburuak Dekretua argitaratu orduko baitira aplikagarriak bi KBEek osatzen duten lurralde osoan.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) sakon aztertu da, eskala egokian irudikatu da Batasunaren intereseko habitaten banaketa eta haien kontserbazio-egoera ebaluatu da. Horretaz gain, etorkizuneko eremu horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Lurralde zabala da, eta Arabako mendebaldeko eskualde menditsuan (Arabako Haranen eskualdea) dago kokatuta. Bertan, populazioaren dentsitate baxuak eta harkaitz-azaleratze garrantzitsuak dituzten baso zabalak daude. Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa eremuan, Habitaten Zuzentaruaren I. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko 28 habitat-mota daudela atzeman da, gutxienez; eta haietatik bost lehentasunezkoak dira. Gainera, ondo kontserbatuta dauden ekosistemen aberastasun aparta du. Gainera, flora-espezie mehatxatu anitzak daude, bai Europar Batasunean, bai autonomia-erkidegoan katalogatuta. Bestalde, eta bertako habitaten aniztasun handiarekin bat, fauna-espezie asko daude. Batez ere, honako hauek dira azpimarratzekoak: kiroptero eta hegazti harkaitzarren espezie anitzak, bisoi europarra, igaraba, bonelli arrano-aztoera edo ibai-karramarroa.

Hori dela-eta, aldez aurreko onarpena izango duen Dekretu-proiektuak zati artikulatu labur bat eta hiru eranskin ditu. Lehenengo biak Eusko Jaurlaritzak zehaztu beharreko alderdiei dagokie, NKLTBaren 22. artikuluari jarraiki, eta honako hauek dira: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa bat. Foru-aldundiaren eskumena KBE-Hegaztientzako BBEaren kudeaketa-jarraibideei buruzkoa da eta Dekretu honen eranskin gisa argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzak ezarritako helburuetan oinarrituta foru-aldundiak landu eta onartu ondoren; beraz, bi Administrazioen arteko koordinazio-bideak garatu beharko dira, emaitzak koherenteak eta eraginkorrak izateko eta herri-partaidetza benetakoa izatea ahalbidetzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetze aldera, dagoeneko dekretu-proiektu egituratu bat landu denez, eta 2012ko abenduaren 12ko Aginduko planteamenduekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Dekretu-proiektuari aldez aurreko onarpena ematea; horren bidez, Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira eta horiek kontserbatzeko helburu eta neurriak onartzen dira, baita Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEarenak ere.

Bigarrena.- Onartzeko prozedurarekin jarraitzea, Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko eta KBEen eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen kontserbazio-neurriak onartzeko Dekretua onesteko espedienteari hasiera ematea erabakitzeko den 2012ko abenduaren 12ko Aginduak aurreikusitako izapideei jarraiki. Hala ere, NKLTBan jasotako araudi-aldaketek ekarritakora egokitu beharko dira.

Dekretuaren proiektuei dagokienez, Hasierako Aginduak genero-eraginaren ebaluazioa egitea aurreikusten zuen. Dekretu-proiektu hau genero ikuspegitik garrantzirik gabeko xedapen orokorra da; beraz, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko bilkuran onartutako eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen 2.1.a Lehen Jarraibidearekin bat, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela egiaztatzeke Jarraibide horien II. eranskina beteko da, Emakundera bidali eta bertan egiaztatzeke.

Hirugarrena.-Agindu hau Arabako Foru Aldundira bidaltzea, espediente osoaren kopiarekin batera; horrela, proiektu honetan ezarritako kontserbazio-helburuen baitan, NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoak aipatzen dituen kudeaketa-jarraibideak lantzeari ekin diezaion.

Laugarrena.- Bi administrazioen arteko lankidetzak sustatzen jarraitu beharko da, dokumentuen behar bezalako ezarpena egiteko; horrela, posible bada, dokumentu osoaren baterako informazio publikoko izapidea egingo da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren zatia eta Arabako Foru Aldundiaren zatia batera.

Vitoria-Gasteizen,

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA

Izpta.: ANA OREGI BASTARRIKA.

DEKRETU-PROIEKTUA. Honen bidez, Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira, horiek kontserbatzeko helburu eta neurriak onartzen dira eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko helburu eta neurriak ere onartzen dira.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko sei Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda (BGL), 2004/813/EE eta 2006/613/EE erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa. Horien artean, Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) ez ezik, Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEa ere badago, Arabako lurralde historikoan, Atlantikoko eta Mediteraneo eskualde biogeografikoetan.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45. artikuluek ezarritakoari jarraiki, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuko BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta KBE eta Hegaztientzako BBEak behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen arabeko eskakizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Dekretu honen bidez, Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) KBE izendatu eta KBE horiek kontserbatzeko helburuak eta neurriak onartzen dira, baita Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEarenak ere. Baina lurralde-eremu horrek Naturagune Babestuen tipologia hirukoitza biltzen du, Parke Naturala, Kontserbazio Bereziko Eremu bi eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu bat; azken biak Natura 2000 Sarekoak dira. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira, eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplikatu daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute. Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa eremuak duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Parke Naturalen kasuan, hiru tipologia arautzen dituen dokumentu bakarraren lege-aurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Plan (hemendik aurrera, NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta EKPZ batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, Naturagune Babestuaren (NB) figura desberdinen arau erregulatuak eta plangintza-mekanismoak

baliagarriak izan daitezke Naturagune Babestuaren (NB) tipologia desberdinen premiak betetzeko, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia guztien deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKPZrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei eta Hegaztientzako BBEari dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua lehen paragrafoa) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAan argitaratu behar izaten dira beti.

Gaur egun, koordinazio hori ez da posible izan. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzapena atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKPZ dokumentua EAeko Natura Kontserbazeko Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso beharko luke: batetik, Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Valderejo Parke Naturalaren Erabiltzeko eta Erabiltzeko eta Kudeatzeko Gida Plana.

Hortaz, Dekretu honen helburua Valderejo eta Sobrón Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eta Habitat Zuzentarauaren 6. artikulua horrelako KBEetarako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea da, KBEak izateagatik eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua izateagatik; beraz, 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroko utzi da, azken xedapenetan bigarrean jasotakoarekin bat.

Hala ere, Natura 2000 Sareko hiru eremu eremu geografiko batean elkartzen direnez, honako hau adierazi beharra dago: Valderejo KBEa, Sobrón KBEa eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEa dira guztira, eta azken horrek lehenengo biak bildu eta beste lurralde batzuk integratzen ditu. Eremu horien eta Natura 2000 Sarearen kudeaketa koherenteagoa izateko, logikoa dirudi babes-figura horiek guztiak naturagune babestu bakar batean bildu beharra. Horrela, horiek guztiek Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEari dagozkion mugak izango dituzte, Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) izendapena emanda. Hori lortzeko, mugak zabaldu egin behar dira, bai Valderejo KBEarenak, bai Sobrón KBEarenak; horrela, gaur egun Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBEak biltzen duen eremuarekin bat egingo dute, eta bi KBE horiek eta Hegaztientzako BBEa biltzen dituen eremu administratibo berria sortuko da. Horrek ekarriko du aurreko izendapenak desegin eta

elkarrekin biltzea Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) izendapenean.

Guztiz eraginkorra izateko, formalki, Natura 2000 Sareko Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBE (ES2110024) berriak eskatzen du, KBEa izateagatik, Europako Batzordeak Erabaki bidez eta alde zuzenetik baliozkotzea. Horregatik, mugaketaren kartografiak jatorrizko BGLen eta Hegaztientzako BBEaren mugaketak ez ezik, KBE-Hegaztientzako BBE berriarenak ere jasotzen ditu. Mugaketa berriak Dekretuaren Azken Xedapenetan Hirugarrenean jasotako baldintzak bete beharko ditu. Hala ere, KBEaren mugaketa berria geroago indarrean jartzeak ez du inolako ondoriozik kasu honetan; izan ere, bi KBEen eta 2000an izendatu zen Hegaztientzako BBEaren mugak eta araudi eta helburuak bateratu direnez gero, dokumentu bakar batek finkatzen dituen araudi eta helburuak Dekretua argitaratu orduko baitira aplikagarriak bi KBEek osatzen duten lurralde osoan.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) sakon aztertu da, eskala egokian irudikatu da Batasunaren intereseko habitaten banaketa eta haien kontserbazio-egoera ebaluatu da. Horretaz gain, etorkizuneko eremu horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Lurralde zabala da, eta Arabako mendebaldeko eskualde menditsuan (Arabako Haranen eskualdea) dago kokatuta. Bertan, populazioaren dentsitate baxuak eta harkaitz-azaleratze garrantzitsuak dituzten baso zabalak daude. Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa eremuan, Habitaten Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko 28 habitat-mota daudela atzeman da, gutxienez; eta haietatik bost lehentasunezkoak dira. Gainera, ondo kontserbatuta dauden ekosistemen aberastasun aparta du. Horretaz gain, flora-espezie mehatxatu anitzak daude bertan; horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: *Buxbaumia viridis*, *Orchis cazorlensis* eta *Ephedra nebrodensis*, galzoriko espezieak izateagatik; eta *Narcissus asturiensis*, Zuzentarauaren II. eranskinean jasota egoteagatik. Bestalde, eta bertako habitaten aniztasun handiarekin bat, fauna-espezie asko daude. Batez ere, honako hauek dira azpimarratzekoak: kiroptero eta hegazti harkaiztarren espezie anitzak, bisoi europarra (*Mustela lutreola*), igaraba (*Lutra lutra*), bonelli arrano-aztoea (*Aquila fasciata*) edo ibai-karramarroa (*Austropotamobius italicus*).

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraiki. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, bai publiko interesdunari komunikazioak helarazita, bai horretarako prestatu den web-orrialdearen bitartez (<http://www.euskadi.eus/natura2000>); eremuari buruzko informazioa eguneratuta egongo da beti webgune horretan.

Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko baliabideak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraiki landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan jaso eta eremuan topatutako habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz.

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko legearen testu bateginaren 22.4. artikuluekin bat, Dekretuak izendapena bera, lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta flora-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat ere jasotzen ditu.

Bestalde, arau horren 22.5 artikuluen lehen paragrafoarekin bat, "Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko jarraibideak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du". Horiek onartzea lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, kasu honetan, Arabako Foru Aldundiari dagokio. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak Dekretu honetan onartzen dituen kontserbazio-helburuen arabera onartu beharko dira. Horretarako, Dekretu honen 3.2. artikulua, azken xedapenetan lehenengoarekin batera, baimena ematen dio Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariari, arau horretan ezarritakoari jarraiki argitaratzeko kudeaketa-jarraipenak, Arabako Foru Aldundiak onartu ondoren.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 19.1 eta 22.5. artikuluetan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2015eko ...aren ...(e[a])n egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) Kontserbazio Bereziko Eremu (hemendik aurrera, KBE) izendatzen dira, Arabako Lurralde Historikoan.

2.- KBEen mugak Dekretu honen I. eranskinean jasotakoak dira, eta xehetasun-azterketen ondorengo eguneratzearen ondorioz, bat datoz Mediterraneoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/613/EE Erabakian jasotako mugekin.

3.- Aurreko idatz-zatian aipatutako mugaketa I. eranskinean Valderejo-Arcenako Mendilerroa Hegaztientzako BBErako zehaztu diren muga geografikoetaraino zabalduko da, Europako Batzordeak onartutakoan.

4.- Onartu egiten dira KBE-Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz Dekretu honen 3. artikulua ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.- Helburua.

1.- Arau honen xedea honako hau da: KBE-Hegaztientzako BBEan bermatzea Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.- KBE-Hegaztientzako BBEan, honako hauek ezarritako araubide orokorra aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaria, 2009/147/EE Zuzentaria eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.- Kontserbazio-neurriak.

1.- Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.4. artikuluekin bat, II. Eranskinak izendapena argudiatzen duten Batasunaren garrantzizko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak ez ezik, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa jasotzen ditu.

2.- Dekretu honen eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak eremu horretarako onartzen dituen jarraibide eta kudeaketa neurriak argitaratzen dira, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.5. artikuluekin bat.

4. artikulua.- Funtsezkoa ez den berrikuspina edo aldaketa

II. Eranskinean funtsezkoa ez den berrikuspina edo aldaketarik behar izanez gero, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentariaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, helburua da kontserbazio eta kudeaketa moldaerraz, etengabe eta malgu baterantz jotzea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarritakoari jarraiki; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Dekretu honi ezarri beharreko zehapen-araubidea, honako hauek araututakoa izango da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako izapide eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Dekretu hau onartzen denean, Valderejo eremuko Parke Naturalaren NBAPa eta EKZPa Naturagune Babestuen tipologia desberdin horiek arautuko dituen dokumentu bakar bihurtzeko prozedura abiaraziko da, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Mediterraneoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/613/EE Erabakian bildutako mugei dagokienez, Europako Batzordeak Valderejo-Sobrón-Arcenako Mendilerroa KBE-Hegaztientzako BBEa (ES2110024) zabaldu eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda eguneratzeko erabakia hartu izanaren berri ematen duen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren Agindua EHAAAn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.


Hirugarrena.- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariari baimena ematen zaio Dekretu honen eranskin gisa argitaratzeko Arabako Foru Aldundiak eremu horiek kudeatzeko onartu dituen jarraibide eta neurriak, Dekretuaren 3.2. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

Laugarrena.- Dekretu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, xxxko XXXaren XX(a).
Lehendakaria,

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua

I. ERANSKINA
EREMUEN MUGAKETA-MAPA



Legenda

-  BGL VALDEREJO ETA BGL SOBRON
-  KBL VALDEREJO-SOBRON-ARCENA MENDILERROA SORTZEKO BGL-EN HANDITZEA
-  BBE VALDEREJO-ARCENA MENDILERROA



1 0 1 2 3 4 km




II. ERANSKINA
INFORMAZIO EKOLOGIKOARI BURUZKO DOKUMENTUA, KONTSERBAZIO-
HELBURUAK, KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-PROGRAMA


NATURA 2000 SAREKO
KONTSERBAZIORAKO HELBURUEN ETA
NEURRIEN DOKUMENTUA
VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENA
MENDILERROAN

- ES2110001 KBE VALDEREJO
- ES2110002 KBE SOBRÓN
- ES0000245 HBBE VALDEREJO-ÁRCENA
MENDILERROA

Ekologia-informazioaren,
kontserbaziorako xede eta arauen, eta
jarraipen-programaren inguruko
dokumentua



2015eko ekaina





AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. INFORMAZIO OROKORRA	4
2.1. KOKAPENA ETA MUGAKETA	4
2.2. JABETZA ERREGIMENA	9
2.3. BESTE BABES FIGURA BATZUK	9
2.4. BESTE EREMU BABESTUEKIN HARREMANA	13
3. EKOLOGIAREN INGURUKO INFORMAZIOA	15
3.1. HABITAT NATURALAK ETA ERDI NATURALAK	15
3.2. FLORA	20
3.3. FAUNA	22
4. ELEMENTU GAKOAK EDO KUDEATU BEHARREKOAK KBE- HBBE_n	29
4.1. VALDEREJO-ÁRCENAKO MENDILERROA KBE-HBBEko ELEMENTU GAKOAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK	29
4.2. KBE-HBBEko ELEMENTU GAKOAK	29
4.3. ELEMENTU GAKOEN ETA VALDEREJO PARKE NATURALAREN ZONIFIKAZIOAREN ARTEKO HARREMANA	38
5. ELEMENTU GAKOEN KONTSERBAZIO EGOERA. PRESIOAK ETA MEHATXUAK	41
5.2. PRESIOEN ETA MEHATXUEN SINTESIA	58
6. KONTSERBATZEKO XEDEAK ETA ARAUAK	61
7. JARRAIPEN PROGRAMA	1

1. SARRERA

Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa izeneko eremua lurralde zabala da, ia 7.000 hektareakoa, eta Arabako Ibarrek eskualdean dago, Arabako mendebaldean. Nabarmentzekoa da populazioaren dentsitate baxua eta baso masen hedadura zabala, azaleratze arrokatsu esanguratsuez josia. Eremu hori estuki lotuta dago ondoan duen Burgos probintziarekin (Gaztela eta Leon Autonomia Erkidegoa), hartzen duen azaleraren zati handi batekin muga egiten du eta. Lurralde zabal honek bi sektore ditu, Burgosko San Zadornil (BGL ES410030 Obarenes mendiak) kokalekuak elkarren artean banatzen dituenak: Valderejo sektorea Purón ibaiak zeharkatzen duen haran altua da, eta Sobrón-Árcena sektoreak mendizerratik Ebro eta Omecillo haranetarantz hego-ekialderago dagoen zatia hartzen du bere baitan.

Purón ibaiak zeharkatzen duen haran altua, Valderejo izenez ezagutzen dena, Parke Natural izendatu zuten urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez. Aldez aurretik Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onetsi zen urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuaren bidez. Eremu hori bera Batasunaren Garrantzizko Leku gisa proposatu zen (BGL ES2110001 Valderejo), 1997ko abenduan Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, habitat naturalak eta basoko flora eta fauna kontserbatzeari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentaraua (Habitat Zuzentarau izenez ezaguna) aplikatuz.

Beste alde batetik, Gobernu Kontseiluak 2000ko azaroaren 28an hartutako erabakiaren bidez, mendilerroan hego-ekialderago dagoen sektorea ere Batasunaren Garrantzizko Leku izendatzea proposatu zen, BGL ES2110002 Sobrón izenarekin, eta dokumentu honetan hizpide dugun lurralde eremu osoa Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatu zuen (izena: Valderejo-Árcena mendilerroa; kodea: ES0000245), gaur egun indarrean dagoen basahegaztien kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/CEE Zuzentarauan (Hegaztien Zuzentaraua izenez ezaguna) xedatutakoarekin bat etorriz.

Adierazitakoa dela eta, Natura 2000 Sareko hiru espazioren inguruko lehen gogoeta egin daiteke, eremu geografikoaren alde batean bat egiten baitute: Valderejo KBE, Sobrón KBE eta Valderejo-Árcena mendilerroa HBBE; izan ere, azken eremu horrek lehen biak hartzen ditu bere baitan, eta, horiez gain, beste lurralde batzuk ere hartzen ditu. Ezin dugu alde batera utzi Valderejoko Parke Naturala, eremu geografiko horren zati bat hartzen baitu. Eremu horiek koherentzia handiagoarekin kudeatzeko asmoz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina (NKLTB) onesten duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko, babesteko figura horiek guztiak babestutako naturgune bakar batean biltzea proposatu da. Horien guztien mugak orain Valderejo-Árcena mendilerroa HBBERi dagozkion mugak lirateke, eta Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa

Babestutako Naturgunea izena izango du (izen hori erabiliko da hemendik aurrera dokumentu honetan).

Bere osotasunean, bi KBEek eta HBBEk paisaia bikaina osatzen dute, naturaltasun handikoa, lurraldeari ikuspuntu ekologikotik balio paregabea ematen dioten habitat kopuru handi batez adierazita eta turismoaren ikuspuntutik leku erakargarria. Inguratzen dituen lekuarekin bat etorri bizitzen jakin duten jendez osatutako paisaia da. Horren froga nabarmena dugu bere baitan dituen natura balio askoren kontserbazio egoera.

Horrez gain, aipatzekoa da dokumentu honen bidez beharrezkoak diren eskalen egokitzapenak egin direla HBBE izendatu zen eremuaren (6.673,97 ha) mugak abiapuntu hartuta. Helburua da Babestutako Naturgunearen eremu osoaren mugak 1:10.000 eskalan definitzea. Hala, nabarmenki bat etorriko dira lurraldeko administrazio mugekin (probintzia eta herrikoekin) nahiz Valderejo Parke Naturalekoekin edo Ebro ibaia/río Ebro KBEren mugekin (ES2110008). Beraz, ondoriozko muga bat etorriko da inskribatu deneko lurraldearen administrazio errealitatearekin.

2. INFORMAZIO OROKORRA

2.1. KOKAPENA ETA MUGAKETA

Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa Babestutako Naturguneak (BN) -sarreran adierazi dugun bezala- Valderejo eta Sobrón KBE eta ES0000245 Valderejo-Árcena mendilerroa HBBE hartzen ditu bere baitan, eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoari soilik dagozkio. Arabako Lurralde Historikoko Arabako Ibarrek eskualdean dago, Araba Erdialdeko Eskualde-egituran.

Basoak eta kareharri zorrotzak nagusi diren paisaian, nabarmentzekoa da Purón ibaiaren presentzia. HBBEren ibilgu nagusia da: Lerón (1.240 imgm) eta Lerón I (1.236 imgm) mendi-tontorretatik hurbil dago iturburua, eta Valderejo zeharkatzen du ipar-mendebaldetik hego-ekialdera. Ebron itsasoratu baino lehen (Burgosko probintzian), hainbat ibaiadarren urak jasotzen ditu.


Berez, eremu honen datuei buruzko formulario normalizatuekin bat etorri, hasiera batean HBBE eta bi BGL izendatu zituzten esparruaren bereizgarri diren oinarritzko parametroak honako hauek dira:

KODEA	ES0000245
Izena	Valderejo-Árcena mendilerroa
HBBE proposamen data	12/1997
HBBE baieztapen data	11/2000
Erdiguneko koordenadak	W3º 11' 43,94" / N 42º 51' 05,87"
Azalera (ha)	6.673,97
Altitude maximoa (m)	1.350
Altitude mínimoa (m)	480
Bataz besteko altitudea (m)	933
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)

KODEA	ES0000245
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea

KODEA	ES2110001
Izena	Valderejo
BGL proposamen data	12/1997
BGL baieztapen data	07/2006
Erdiguneko koordenadak	W3° 14' 249"/N 42° 52' 43"
Azalera (ha)	3.418,0
Altitude maximoa (m)	1.250
Altitude minimoa (m)	620
Bataz besteko altitudea (m)	975
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea

KODEA	ES2110002
Izena	Sobrón
BGL proposamen data	11/2000
BGL baieztapen data	07/2006
Erdiguneko koordenadak	W3° 06' 022"/N 42° 46' 37"
Azalera (ha)	1.760
Altitude maximoa (m)	1.320
Altitude minimoa (m)	480
Bataz besteko altitudea (m)	906
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea



Valderejoko eta Sobróngo KBEren eta Arcena mendilerroa HBBEren identifikazioa eta kokapena. Jatorrizko zedarriztapena. Iturria: 2003ko datu-inprimakiak.

Arestian adierazitako mugaketan eskalaren egokitzapenak egin ondoren, honako hauek dira HBBEren eta KBEren oinarritzko parametro bereizgarriak:

KODEA	ES0000245
Izena	Valderejo-Sierra de Arcena
HBBE proposamen data	12/1997
HBBE baieztapen data	11/2000
Erdiguneko koordenadak	W3° 13' 54,82" / N 42° 52' 36,48"
Azalera (ha)	6.815,71
Altitude maximoa (m)	1.361
Altitude minimoa (m)	475,6
Bataz besteko altitudea (m)	914,2
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea

KODEA	ES2110001
Izena	Valderejo
BGL proposamen data	12/1997
BGL baieztapen data	07/2006
Erdiguneko koordenadak	W3° 14' 19"/N 42° 52' 16"
Azalera (ha)	3.566,66
Altitude maximoa (m)	1261,2
Altitude minimoa (m)	618,7
Bataz besteko altitudea (m)	976,5
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea

KODEA	ES2110002
Izena	Sobrón
BGL proposamen data	11/2000
BGL baieztapen data	07/2006
Erdiguneko koordenadak	W3° 06' 34"/N 42° 46' 41"
Azalera (ha)	1.753,75
Altitude maximoa (m)	1.323
Altitude minimoa (m)	476
Bataz besteko altitudea (m)	824
Eskualde administratiboa	Araba L.H. (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea


Valderejoko eta Sobróngo KBEren eta Arcena mendilerroa HBBEren identifikazioa eta kokapena. Doitutako zedarriztapena.

Gainera, sarreran adierazi den bezala, koherentzia eta arrazionaltasun handiagoa eman behar zaio eremu hau partzialki gainjartzen dituen Natura 2000ko hiru eremuen kontserbazioari. Horretarako proposatu da HBBE egokitutako mugarekin uztea eta bi BGLak, Valderejo eta Sobrón, KBE bakar batean bateratzea. HBBE eta KBE eremuek izen berbera izango dute: "Valderejo-Sobrón-Arcena mendilerroa". Aldaketa horiek egin ondoren, HBBEren eta sortutako KBE berriaren oinarritzko parametro bereizleak honako hauek izango dira:

HBBEren KODEA	ES0000245
KBEren KODEA	
Izena	Valderejo-Sobrón-Arcena mendilerroa
HBBE proposamen data	12/1997
BGL proposamen data	12/1997 (Valderejo) eta 11/2000 (Sobrón)
HBBE baieztapen data	11/2000


HBBEren KODEA	ES0000245
KBEn KODEA	
BGL baieztapen data	07/2006 (Valderejo eta Sobrón)
Erdi puntuko koordenadak	W3° 13' 54,82" / N 42° 52' 36,48"
Azalera (ha)	6.815,71
Gehienezko altituda (m)	1.361
Gutxienezko altituda (m)	475,6
Batazbesteko altituda (m)	914,2
Administrazio eskualdea	Arabako L.H. (% 100)
Biogeografia eskualdea	Mediterranea

“Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa” KBE-HBBEren identifikazioa eta kokapena. KBE-HBBEren mugapen-proposamena eskala doiketaren ondoren.




Legenda

-  BGL VALDEREJO ETA BGL SOBRON
-  KBL VALDEREJO-SOBRON-ARCENA MENDILERROA SORTZEKO BGL-EN HANDITZEA
-  BBE VALDEREJO-ARCENA MENDILERROA



Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroaren Babestutako Naturgunea Arabako Lurralde Historikoko hego-mendebaldeko muturrean dago. Eremua Gaubea udalerrriaren mendebaldeko muturraren eta Añana eskualdearen baitan dagoen hego-ekialdeko muturraren artean zabaldua dago, bai eta Lantarón udalerrri osoaren artean ere. BNa aipatu udalerrietako hamahiru kontzejuak osatzen dituen eremu batean dago. Ondorengo taulan jasotzen da eremua kontzejuetan banatuta:



Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa BNko azaleraren banaketa kontzejuen arabera. Iturria: Geoeuskadi

Kontzejuak	BN (KBE-HBBE) (ha)	Kontzejuen azaleraren %
Bachicabo	347,33	44,7
Barrio	207,71	21,0
Boveda	435,93	21,1
Corro	211,11	32,4
Espejo	23,77	2,1
Nograro	97,48	7,5
Pinedo	34,51	7,1
Sobrón	1.135,60	97,7
Tobillas	216,10	31,6
Valderejo	4.104,75	100,00

BNko azaleraren banaketa kontzejuen arabera. Iturria: Geoeuskadi.

2.2. JABETZA ERREGIMENA

Eremuaren azaleraren zati handiena, 5.647,8 ha, (% 82,86) Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroko KBE-HBBEren mugen baitan definituta dago, eta herri jabarikoa da, Onura Publikoko Mendien (OPM) araubide juridikoaren baitan, martxoaren 26ko 11/2007 Mendien Foru Arauan araututakoarekin bat.

Kontzejuak	OPM BNn (KBE-HBBEn) (ha)	Azalera BNn (KBE-HBBEn) (ha)	BNko (KBE-HBBEko) jabari publikoa (OMP) %
Bachicabo	342,73	347,33	98,68
Barrio	187,60	207,71	90,32
Boveda	378,68	435,93	86,61
Corro	152,43	211,11	72,17
Espejo	20,47	23,77	86,12
Nograrro	97,50	97,48	100,00
Pinedo	5,88	34,51	17,04
Sobrón	825,77	1.135,60	72,72
Tobillas	147,65	216,10	68,32
Valderejo	3.489,12	4.104,75	85,00
Gutzira	5.647,83	6.815,71	82,86

BKE-HBBEko OPMen banaketa kontzejuen arabera. Iturria: Geoeuskadi.

2.3. BESTE BABES FIGURA BATZUK

Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBE Babestutako Naturguneko zati bat Valderejoko Parke Naturala da, urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez izendatua. Aldez aurretik zegokion Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onetsi zen urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuaren bidez.

Horrez gain, KBE-HBBE eremua Interes Bereziko Eremua da Kudeaketa Plana indarrean duten beheko espezieentzat; hori dela eta, aipatu kudeaketa-planen xedapenak aplikatu behar dira eremu horietan:

- 612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa, 'Bonelli arranoa' (*Hieraaetus fasciatus*) izeneko hegaztia Araban Kudeaketa Plana onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskadiko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatua.
(http://www.alava.net/cs/Satellite?c=DPA_Plan_FA&cid=1223990002736&language=eu_ES&pageid=1193046468688&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Plan_FA%2FDPA_plan)

- 22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, "Uhalde-enara (*Riparia riparia*)" hegazia Kudeatzeko Plana onesten duena, espezie mehatxatua den eta galzorian dagoen eta babeserako neurri bereziak behar dituen espeziea denez gero.
- 322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, zeinaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Plana onartzen den.
- 880/2004 Foru Agindua, azaroaren 7koa, zeinaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan Igarabaren (*Lutra lutra*) (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen den.
- 351 Foru Agindua, 2002ko ekainaren 12koa, Araban Ibai Kabuxaren (*Salaria fluviatilis*) Kudeaketa Plana onartzen duena, galzorian dagoen eta babeserako neurri bereziak behar dituen espeziea denez gero.
- Era berean, KBE-HBBEren eremuetan aplikatzekoak dira otsoaren Kudeaketa Planaren xedapenak (33/2010 Foru Dekretua, ekainaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena).

Plan hidrologikoen Babestutako Eremuen Erregistroari (BEE) dagokionez (Kantauri ekialdeko eta Ebroko Mugaketa Hidrografikoa):

Hornidurarako ur-hartune eremuak. Hornidurarako lurrazpiko hartuneak

Ur masaren kodea	Ur masa	Ur masaren azalera (m ³)	Ur-hartune kopurua ur masan
007	Valderejo-Sobrón	25.119	11

Etorkizunean babestuko diren hornidurarako lurrazpiko hartune eremuak

Babestutako eremuaren izena	Ur masa	Mota	Azalera (km ²)
Valderejo-Sobrón Goi Kretazikoa	Valderejo-Sobrón	Lur azpikoa	191,15
Losa kareharrien Goi-ertain Konanziarra	Valderejo-Sobrón	Lur azpikoa	291,16

Eremu sentikorrak. Eremu sentikorrak ur-kontinentaletan


Eremu Sentikorraren (ES) kodea	ES Izena	Izendapen kriterioa	Masaren kodea	Masaren izena	Mantenugaia	Mota	Azalera (km ²)
EBS02	Sobrón	II.	22	Sobrón urtegia	N	Kontinental	1,85

Eremu Sentikorraren (ES) kodea	ES Izena	Izendapen kriterioa	Masaren kodea	Masaren izena	Mantenugaia	Mota	Azalera (km ²)
	urtegia	eranskina, 509/1996 ED				a	

Urarekin loturiko habitat edo espezieen babeserako eremuak

Ebroren Plan Hidrologikoaren BEEren baitan, gainazaleko eta lur azpiko hainbat ur-masa daude, hala Valderejo eta Sobrónen KBE-etan nola Valderejo-Árcena mendilerroa EKPErenetan.

Ur mineralen eta termalen babes-perimetroa



Ur mineralen eta ur termalen babes perimetroak.
Iturria: Ur Agentzia/Agencia Vasca del Agua, 2012.

Ibai-erreserba naturalak babesteko izendatutako eremuak

EAEko Erkidego arteko arroetan (Mediterraneoko isurialdea) proposatutako lau ibai tarteetako bat da Puron ibaiari dagokiona.

Hezeguneak babesteko izendatutako eremuak


Hezeguneen hautespen bat jasotzen da, Hezeguneen LSPren I. eta II. taldeetan (uztailaren 27ko 160/2004 Dekretua) eta EAEko Mediterraneoko isurialdean sartutakoak. Lotura zuzena dute aztergai dugun esparruarekin: Polledoko, Lantarongo, Cocinillako, Cotilloko eta Corroko padurak, Sobróneko urtegia eta Valderejoko putzuak.

- Hezegune babestuen inbentarioa eta katalogoa. Euskal Autonomi Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana (160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa, urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez aldatutakoa) eta 2011ko maiatzaren 3ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saileko buruarena.

Kodea	IZENA_ES	Taldea	Azalera (m ²)	X	Y
B1A10_07	Corroko zingirak	III	3.005	485490	4746490
B1A10_08	Corroko zingirak	III	9.115	485857	4746285
B1A10_09	Corroko zingirak	III	616	485933	4746300
B1A10_10	Corroko zingirak	III	2.736	485999	4746373
B1A10_11	Corroko zingirak	III	2.490	486354	4745447
B1A10_12	Corroko zingirak	III	2.902	486367	4745319
B1A10_13	Corroko zingirak	III	10.219	486663	4745780
B1A10_14	Corroko zingirak	III	2.858	486932	4745380
B1A10_15	Corroko zingirak	III	2.799	487007	4745236
B1A17_01	Lantarongo zingirak	III	10.205	489302	4734315
B1A17_02	Lantarongo zingirak	III	3.497	491983	4735823
B1A17_03	Lantarongo zingirak	III	958	490504	4736452
B1A2	Polledoko zingira	I	974	481358	4745387
B1A20	Cotillo sakanako zingira	III	15.087	482706	4748793
B1A21_01	La Cocinillako zingirak	III	14.173	482861	4748344
B1A21_02	La Cocinillako zingirak	III	5.707	483157	4748248
B1A21_03	La Cocinillako zingirak	III	1.772	483394	4748246
B1A3	Cotillo sakanako zingira	I	390	481178	4742404
EA13	Sobrónigo urtegia	III	685.947	490079	4734238
GA16_01	Valderejoko putzuak	I	489	478868	4750021
GA16_02	Valderejoko putzuak	I	1.436	479109	4749753
GA16_03	Valderejoko putzuak	I	39	480245	4749660
GA16_04	Valderejoko putzuak	I	149	479384	4748396
GA16_05	Valderejoko putzuak	I	4.085	480278	4747807
GA16_06	Valderejoko putzuak	I	270	480742	4747731
GA16_07	Valderejoko putzuak	I	771	480753	4748295
GA16_08	Valderejoko putzuak	I	95	479957	4747040
GA16_09	Valderejoko putzuak	I	262	481602	4747226
GA16_10	Valderejoko putzuak	I	341	481748	4747428
GA16_11	Valderejoko putzuak	I	718	481725	4747082
GA16_12	Valderejoko putzuak	I	502	478532	4746729
GA16_13	Valderejoko putzuak	I	1.064	479922	4746197
GA16_14	Valderejoko putzuak	I	1.024	480190	4746808
GA16_15	Valderejoko putzuak	I	240	482982	4744435
GA16_16	Valderejoko putzuak	I	41	482791	4746626
GA16_17	Valderejoko putzuak	I	147	482695	4745847
GA16_18	Valderejoko putzuak	I	57	482672	4744791

Kodea	IZENA_ES	Taldea	Azalera (m ²)	X	Y
GA16_19	Valderejoko putzuak	I	194	483092	4744450


- Azkenik, adierazi behar da SEO/BirdLifek (BirdLife Internationalen ordezkaria Espainian, non Hegaztiak Kontserbatzeko Eremu Garrantzitsuen Programa garatzen den) Valderejo sartu duela IBA 032 Gaubea – Arcena mendilerroan. 31.173,40 hektareako azalera du, eta EAE eta Gaztela eta Leon artean dago.



Hegaztien Kontserbaziorako Garrantzizko Eremuak. Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa

2.4. BESTE EREMU BABESTUEKIN HARREMANA

Valderejo-Sobrón-Arcena mendilerroa KBE-HBBEK lotura zuzena du ES2110008 Ebro ibaia KBerekin eta ES4120030 Obarenes mendiekin.



Natura 2000 Sareko beste eremuekin Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBeak daukan harremana.

3. **EKOLOGIAREN INGURUKO INFORMAZIOA**

3.1. HABITAT NATURALAK ETA ERDI NATURALAK

Jarraian 'Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa' ES0000245 KBE-HBBEn dauden Batasunaren intereseko habitaten inguruko informazioa eskainiko dugu, *Habitaten Zuzentarauaren (92/43/EEE)* eta *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen* arabera, eta bien I. Eranskinean oinarrituta. Aipatutako testuen I.eranskinetako izenak erabiliko dira (dokumentu honetan aurrerantzean lehentasunez erabiliko direnak), baina baliteke testuan habitat bakoitzarentzat EAera egokitutako izenak erabiltzea. (*) ikurrak lehentasunezko habitata esan nahi du.

Lekuko Batasunaren intereseko habitat guztiak kontserbazioaren xede dira.

Ondorengo taulan dokumentu honetan proposatutako KBE-HBBEren mugaketaren arabera eta eremuan kartografiatutako Batasunaren intereseko habitat bakoitzaren inguruko datuak zehazten dira, hala nola azalera, estaldura, adierazgarritasuna, lekuaren balorazio orokorra, eta KBE-HBBEn eta EAE duen kontserbazio egoera. Batasunaren eta eskualde-intereseko habitaten guztizko azalera 3.525,24 ha-koa da, hau da, KBE-HBBEren azaleraren % 51,7.

HZ Kodea	Izendapena	Azalera KBE-HBBEn (ha)	KBE-HBBEko azaleraren %	EAEko N2000Sko azaleraren %	EAEko azaleraren %	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn	Kontserbazio egoera EAEn
3140	Ur oligomesotrofo karedunak <i>Chara spp.</i> -eko landaredi bentikoduna	0,04	0,001	0,12	0,12	D			
3150	Laku eutrofiko naturalak <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> -eko landarediarekin	0,06	0,001	0,03	0,02	D			
4030	Txilardi lehor europarrak	7,43	0,11	0,11	0,04	D			
4060	Txilardi alpetar eta borealak	17,64	0,26	57,94	57,67	D			
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin	1.006,17	14,76	12,63	5,42	A	A	Aldekoa	Aldekoa
5110	Malda arroksuetako <i>Buxus sempervirens</i> -eko formazio egonkor xerotermofiloak (<i>Berberidion p.p.</i>)	135,99	2,00	10,32	8,24	A	A	Aldekoa	Desegokia
5210	Juniperus ssp.-eko sastraka zuhaizkarak	15,88	0,23	49,74	26,71	A	A	Aldekoa	Aldekoa
6170	Larre alpetar eta subalpetar karedunak	276,07	4,05	7,07	5,14	D			
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	157,88	2,32	8,24	1,85	B	B	Aldekoa	Desegokia

HZ Kodea	Izendapena	Azalera KBE-HBBEn (ha)	KBE-HBBEko azaleraren %	EAEko N2000Sko azaleraren %	EAEko azaleraren %	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn	Kontserbazio egoera EAEn
6220	Gramineodun eta urteroko <i>Thero-Brachypodietea</i> -dun zona subestepikoak	24,56	0,36	5,18	0,41	D			
6230*	<i>Nardus</i> -dun formazio belarkarak, espezie ugariarekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarreko) silize-substratuetan	11,85	0,17	0,19	0,15	D			
6430	Ordoki bazterreko eta estai menditar eta alpetarreko megaforbio eutrofo higrofiloak	0,36	0,01	7,92	7,92	D			
7210*	<i>Cladium mariscus</i> -eko kare-zohikaztegiak, <i>Caricion davallinae</i> -ko espezieekin	0,58	0,01	32,91	32,64	A	A	Aldekoa	Desegokia
7220*	Iturburu petrifikante tofikoletako formazioak (Cratoneurion)	0,14	0,00	21,17	17,78	A	A	Aldekoa	Desegokia
7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak	5,89	0,09	6,36	5,57	A	B	Aldekoa	Desegokia
8130	Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak	49,83	0,73	23,67	21,75	A	A	Inadecuado	Aldekoa
8210	Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak	101,57	1,49	3,25	2,73	A	B	Aldekoa	Desegokia

HZ Kodea	Izendapena	Azalera KBE-HBBEn (ha)	KBE-HBBeko azaleraren %	EAEko N2000Sko azaleraren %	EAEko azaleraren %	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn	Kontserbazio egoera EAEn
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	-	-	-		B	B	Aldekoa	Desegokia
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrak, Ilex oihanpedunak, eta batzuetan Taxus-dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>)	92,43	1,36	0,64	0,39	C	C	Desegokia	Txarra
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>)	117,75	1,73	5,70	4,64	A	B	Desegokia	Desegokia
9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (<i>Tilio-Acerion</i>)	59,50	0,87	13,97	9,51	B	B	Aldekoa	Aldekoa
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> -eko ibarbasoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	17,68	0,26	1,47	0,40	D			
9230	Harizti galaikoportugesak, <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> -rekin	27,52	0,40	0,77	0,30	C	C	Desegokia	Desegokia
9240	Harizti iberiarrak <i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> -ekin	332,93	4,88	4,65	1,48	B	B	Desegokia	Txarra
9260	<i>Castanea sativa</i> -ko basoak	1,62	0,02	1,85	0,37	D			
92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i> -ko galeria-basoak	4,98	0,07	1,18	0,87	D			

HZ Kodea	Izendapena	Azalera KBE-HBBEn (ha)	KBE-HBBEko azaleraren %	EAEko N2000Sko azaleraren %	EAEko azaleraren %	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn	Kontserbazio egoera EAEn
9340	Quercus ilex eta Quercus rotundifolia-ko basoak	1.020,63	14,97	10,26	4,24	A	A	<i>Desegokia</i>	<i>Txarra</i>
9540	Pinu mesogear endemikoko pinudi mediterraneoak	38,44	0,56	100,00	42,07	B	A	<i>Txarra</i>	<i>Txarra</i>

(*). Lehenetsunduna.

3.2. FLORA

BNko eremuan, Habitaten Zuzentzaruen eranskinetako batean sartutako taxoi hauek aipatu dira:

ESPEZIEA	HA Eranskinak	EMEK
<i>Nacissus pseudonarcissus gr. nobilis</i>	II	R
<i>Narcissus asturiensis</i>	II	IE
<i>Narcissus bulbocodium</i>	V	IE
<i>Ruscus aculeatus</i>	V	IE

KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroaren formulario normalizatuak Habitat Zuzentzaruko II. Eranskinen sartutako flora espezie bat jasotzen du: *Narcissus asturiensis*. "Interes bereziko eremuko" espezieztat jotzen da Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Valderejon leku hauetan aurkitu dira: Villamardonesen (30TVN8046), Ribieran (30TVN8243, 30TVN8342) eta Santa Anan (30TVN8143). Sobrónen leku hauetan aurkitu dira: Hozalaresen (30TVN9137, 30TVN9037) eta La Motan (30TVN8838, 30TVN8738, 30TVN8837, 30TVN8936, 30TVN8937).

Espezie horiez gain, erantsitako taulan, KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroko esparruan dauden flora espezie mehatxatuak jasotzen dira:

Kodea	Izen zientifikoa	HZ eranskina	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBE-HBBEm
1857	<i>Nacissus pseudonarcissus gr. nobilis</i>	II	*	B	-	
1865	<i>Narcissus asturiensis</i>	II	*	IB	-	Aldekoa
1864	<i>Narcissus bulbocodium</i>	V		IB	-	
1849	<i>Ruscus aculeatus</i>	V		IB	-	
-	<i>Antirrhinum braun-blanquetii</i>	-	-	B	-	
-	<i>Arenaria erinacea</i>	-	-	B	-	
-	<i>Armeria arenaria subsp. burgalensis</i>	-	-	B	-	
-	<i>Aster alpinus</i>	-	-	B	-	
-	<i>Aster willkommii</i>	-	-	B	-	
-	<i>Centaurea</i>	-	-	K	-	

Kodea	Izen zientifikoa	HZ eranskina	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBE- HBBEm
	<i>laqascana</i>					
-	<i>Coeloglossum viride</i>	-	-	K	-	
-	<i>Ephedra nebrodensis</i>	-	-	GA	-	Txarra
-	<i>Epipactis palustris</i>	-	-	K	-	
-	<i>Erodium daucoides</i>	-	-	B	-	
-	<i>Erodium glandulosum</i>	-	-	B	-	
-	<i>Galium boreale</i>	-	-	K	-	
-	<i>Genista eliassenenii</i>	-	-	B	-	
-	<i>Genista florida</i>	-	-	K	-	
-	<i>Himantoglossum hircinum</i>	-	-	B	-	
-	<i>Ilex aquifolium</i>	-	-	IB	-	
-	<i>Ophrys aveyronensis</i>	-	-	K	-	
-	<i>Orchis cazorlensis</i>	-	-	GA	-	Txarra
-	<i>Orchis italica</i>	-	-	K	-	
-	<i>Osmunda regalis</i>	-	-	IB	-	
-	<i>Paeonia officinalis subsp. microcarpa</i>	-	-	B	-	
-	<i>Quercus robur</i>	-	-	IB*	-	
-	<i>Saxifraga conifera</i>	-	-	K	-	
-	<i>Silene ciliata</i>	-	-	K	-	
-	<i>Sideritis ovata</i>	-	-	IB	-	
-	<i>Taxus baccata</i>	-	-	IB	-	

* *Quercus robur* (Sobrónko populazioa).

HZ: Habitat Zuzentaraua;

BBEBEZ: Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda;

EEMK: Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoa;

EMEK: Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa;

GA: Galtzeko arriskuan; K: Kaltebera; B: Bakana; IB: Interes berezikoa

Kudeaketa Planak. A: Araba; B: Bizkaia; G: Gipuzkoa

Mehatxuaren maila dela eta (galtzeko arrisku larrian daude), *Orchis cazorlensis* espeziea aipatu behar da. EAEn ezagutzen den populazio bakarra Arabako mendebaldean dago, zehazki, Valderejon.

Mehatxu maila horrekin berarekin (galtzeko arriskua), nabarmentzekoa da *Ephedra nebrodensis* espeziea. EAeko populazio ezagun bakarra Sobrón go haizpitartean dago.

Briofitoak

KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroan dago EAeko *Buxbaumia viridis* briofitoaren aipamen bakarra. Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoaren arabera, galtzeko arriskuan dago. Deskonposizioan dagoen egurreko goroldio berezian datza. Mehatxu nagusia zuhaitzak naturalki hil baino lehen eliminatzen dituzten baso ustiaketak dira, egur hilaren presentzia eragozten dute-eta basoan.

Flora oportunistak edo inbaditzaileak

KBE-HBBE eremuan, pinu gorriaren presentzia nabarmena ikusi da. Pinu gorria, *Pinus sylvestris*, zuhaitz oportunistak da, lurraldean aparteko bizitasuna duena. Gaur egun, pinudiak ikaragarri nagusitu dira mendi hauetan, baina, horien azpian, oihanpeetan, berriz agertu da inguruko berezko komunitatea, eta agerian utzi du bere artifizialtasuna. Konifero honen eremu naturala inguruan oso murriztua da. Horrenbestez, presentzia masibo horri aurre egiteko, mozketak selektiboak egiten dira, hazkuntza motela duten eta ez hain produktiboak diren beste zuhaitz batzuen lehia kentzeko, baita basoetan barrena aske dabilen ganadua kentzeko ere, zuhaitz hostoerorkorren kimu berriak irensten dituzte eta. Gauzak horrela, usurpatzaileak badira ere, pinu gorriko pinudiek gaur egun mendi hauetako lur onenak babestu eta errentagarri bihurtzen dituzte. Hala, ustiapen traumatiko eta kaltegarrienak saihesten dituzte (Barredo, J.J.& Barredo, U., 2002).

Beste alde batetik, *Robinia pseudoacaciaren* presentzia detektatu da Sobrón hirigunearen inguruan.

3.3. FAUNA

Erantsitako taulan, KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroan dauden batasunerako edo eskualde-intereseko espezieen zerrenda dago. Bertan, espezie horiek agertzen diren eranskinak azaltzen dira, baita haien sailkapena ere, zerrenda eta katalogo desberdinen arabera.

Hegaztien espezieei dagokienez, 2009/14/CEE Hegaztien Zuzentarauaren I. Eranskineko (IV. Eranskina, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa) espezieak daude, baita KBEn maiz agertzen diren espezie migratzaileak eta Hegaztien Zuzentarauaren I. Eranskinen ez daudenak.

HZ/HeZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eransk.	HeZ eransk.	BBEBEZ* / EEMK	EMEK	KP EAEn	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn
UGAZTUNAK									
1333	Saguzar buztanluzea	<i>Tadarida teniotis</i>		IV		*	IB		Ezezaguna
1308	Baso saguzarra	<i>Barbastella barbastellus</i>		II, IV		*	GA		Ezezaguna
1310	Scheibers saguzarra	<i>Miniopterus schreibersii</i>		II, IV		K	K		Ezezaguna
1324	Arratoi belarri handia	<i>Myotis myotis</i>		II, IV		K	GA		Ezezaguna
1303	Ferra-saguzar txilia	<i>Rhinolophus hipposideros</i>		II, IV		*	IB		Ezezaguna
5817	Ferra-saguzar handia	<i>Rhinolophus ferrum-equinum</i>		II, IV		K	K		Ezezaguna
2616	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>					K		Ezezaguna
5560	Mendebaldeko ur-arratoia	<i>Arvicola sapidus</i>							Desegokia
1355	Igaraba	<i>Lutra lutra</i>		II, IV		*	GA	A	Desegokia
1356	Bisoi europarra	<i>Mustela lutreola</i>		II, IV		GA	GA	A,B,G	Txarra
2632	Erbinude zuria	<i>Mustela erminea</i>				*	IB		Aldekoa
1358	Ipurtatsa	<i>Mustela putorius</i>		V			IB		Aldekoa
1357	Lepahoria	<i>Martes martes</i>		V			B		Desegokia
6110	Basakatua	<i>Felis silvestris</i>		IV		*	IB		Ezezaguna
HEGAZTIAK (I eranskina)									
A029	Lertxun gorria	<i>Ardea purpurea</i>	b		I	*	B		Txarra
A031	Amiamoko zuria	<i>Ciconia ciconia</i>	m		I	*	B		Aldekoa
A072	Zapelaitz liztorjalea	<i>Pernis apivorus</i>	B		I	*	B		Aldekoa
A073	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	hm		I	*			Aldekoa
A074	Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>	mn		I	GA	GA		Txarra
A076	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	U		I	GA	GA		Txarra
A077	Saizuria	<i>Neophron percnopterus</i>	H		I	K	K		Txarra
A078	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	B		I	*	IB		Aldekoa
A079	Sai motza	<i>Aegypius monachus</i>	U		I	K			Txarra
A080	Arrano sugezalea	<i>Circaetus gallicus</i>	hm		I	*	B		Aldekoa
A081	Zingira mirotza	<i>Circus aeruginosus</i>	m		I	*	B		Aldekoa
A082	Mirotz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	mn		I	*	IB		Txarra
A084	Mirotz urdina	<i>Circus pygargus</i>	m		I	K	K		Txarra

HZ/HeZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eransk.	HeZ eransk.	BBEBEZ* / EEMK	EMEK	KP EAEn	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn
A091	Arrano beltza	<i>Aquila chrysaetos</i>	b		I	*	K		Aldekoa
A092	Arrano txikia	<i>Hieraaetus pennatus</i>	hm		I	*	B		Aldekoa
A093	Bonelli arranoa	<i>Aquila fasciata</i> ***	U		I	K		A	Txarra
A098	Belatz txikia	<i>Falco columbarius</i>	n		I	*	B		Aldekoa
A103	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	B		I	*	B		Aldekoa
A112	Eper grisa	<i>Perdix perdix</i>	U		I				Txarra
A127	Kurrilo arrunta	<i>Grus grus</i>	U		I	*	IB		Txarra
A215	Hontza haundia	<i>Bubo bubo</i>	b		I	*	B		Aldekoa
A224	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	hm		I	*	IB		Txarra
A229	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	MN		I	*	IB		Aldekoa
A236	Okil beltza	<i>Dryocopus martius</i>	b		I	*	B		Aldekoa
A246	Pirripioa	<i>Lullula arborea</i>	HM		I	*			Txarra
A255	Landa txirta	<i>Anthus campestris</i>	h		I	*	IB		Desegokia
A302	Ota-txinboa	<i>Sylvia undata</i>	b		I	*			Aldekoa
A338	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	hm		I	*			Desegokia
A346	Belatxinga mokogorria	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	B		I	*	IB		Desegokia
A379	Miarritza	<i>Emberiza hortulana</i>	m		I	*	IB		Txarra
Ohiko hegazti migratzaileak									
A017	Ubarroi handia	<i>Phalacrocorax carbo</i>	MN					-	Aldekoa
A028	Lertxun hauskara	<i>Ardea cinerea</i>	mn			*		-	Aldekoa
A053	Basahatea	<i>Anas platyrhynchos</i>	bmn		II/1			-	Aldekoa
A099	Zuhaitz-belatza	<i>Falco subbuteo</i>	m			*	B	-	Aldekoa
A113	Galeperra	<i>Coturnix coturnix</i>	¿h?m		II/2			-	Desegokia
A125	Kopetazuri arrunta	<i>Fulica atra</i>	b		II/2-III/2			-	Aldekoa
A142	Hegabera	<i>Vanellus vanellus</i>	mn		II/2			-	Desegokia
A153	Ixtingor arrunta	<i>Gallinago gallinago</i>	mn		II/1-III/2			-	Desegokia
A155	Oilagorra	<i>Scolopax rusticola</i>	¿b?MN		II/1-III/2			-	Desegokia
A165	Kuliska iluna	<i>Tringa ochropus</i>	m			*		-	Aldekoa
A168	Kuliska txikia	<i>Actitis hypoleucos</i>	m			*	B	-	Aldekoa
A208	Pagausoa	<i>Columba palumbus</i>	BM		II/1-III/1			-	Aldekoa

HZ/HeZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eransk.	HeZ eransk.	BBEBEZ* / EEMK	EMEK	KP EAEn	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn
A210	Usapala	<i>Streptopelia turtur</i>	¿h?m		II/2			-	Txarra
A212	Kukua	<i>Cuculus canorus</i>	Hm			*		-	Aldekoa
A214	Apo-hontza	<i>Otus scops</i>	h			*		-	Desegokia
A226	Sorbeltz arrunta	<i>Apus apus</i>	H			*		-	Aldekoa
A228	Malkar sorbeltza	<i>Tachymarptis melba</i>	h			*	IB	-	Aldekoa
A232	Argi oilarra	<i>Upupa epops</i>	h			*	K	-	Desegokia
A233	Lepitzulia	<i>Jynx torquilla</i>	Hm			*	IB	-	Desegokia
A251	Enara arrunta	<i>Hirundo rustica</i>	H			*		-	Desegokia
A253	Enara azpizuria	<i>Delichon urbicum</i>	H			*		-	Desegokia
A256	Uda txirta	<i>Anthus trivialis</i>	H			*		-	Desegokia
A257	Negu txirta	<i>Anthus pratensis</i>	MN			*		-	Aldekoa
A271	Urretxindorra	<i>Luscinia megarhynchos</i>	hm			*		-	Aldekoa
A274	Buztangorri argia	<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	hm			K	K	-	Txarra
A275	Pitxartxar nabar	<i>Saxicola rubetra</i>	hm			*	IB	-	Txarra
A277	Ipurzuri arrunta	<i>Oenanthe oenanthe</i>	HM			*		-	Desegokia
A280	Harkaitz zozo gorria	<i>Monticola saxatilis</i>	h			*	IB	-	Desegokia
A284	Durdula	<i>Turdus pilaris</i>	mn		II/2			-	Aldekoa
A286	Birigarro txikia	<i>Turdus iliacus</i>	MN		II/2			-	Aldekoa
A288	Errekatxindorra	<i>Cettia cetti</i>	b			*		-	Aldekoa
A300	Sasitxori arrunta	<i>Hippolais polyglotta</i>	HM			*		-	Aldekoa
A304	Txinbo papargorizta	<i>Sylvia cantillans</i>	h			*	IB	-	Aldekoa
A309	Sasi-txinboa	<i>Sylvia communis</i>	hm			*		-	Aldekoa
A310	Baso-txinboa	<i>Sylvia borin</i>	HM			*		-	Aldekoa
A311	Txinbo kaskabeltza	<i>Sylvia atricapilla</i>	BMN			*		-	Aldekoa
A313	Txio lepazuria	<i>Phylloscopus bonelli</i>	h			*		-	Desegokia
A316	Txio horia	<i>Phylloscopus trochilus</i>	M			*	B	-	Aldekoa
A319	Euli-txori grisa	<i>Muscicapa striata</i>	M			*		-	Desegokia
A322	Euli-txori arrunta	<i>Ficedula hypoleuca</i>	M			*	B	-	Desegokia
A337	Urretxoria	<i>Oriolus oriolus</i>	h			*		-	Aldekoa
A365	Tarina	<i>Carduelis spinus</i>	bN			*	IB	-	Aldekoa

HZ/HeZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HZ eransk.	HeZ eransk.	BBEBEZ* / EEMK	EMEK	KP EAEn	Kontserbazio egoera KBE-HBBEn
ANFIBIO ETA NARRASTIAK									
5595	Eskinko hiruatz	<i>Chalcides striatus</i>				*			Ezezaguna
2424	Sugandila bizierrulea	<i>Lacerta vivipara</i>		IV					Ezezaguna
1256	Horma-sugandila	<i>Podarcis muralis</i>		IV		*			Favorable
1283	Iparraldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>		IV		*			Ezezaguna
2351	Arrubioa	<i>Salamandra salamandra</i>							Favorable
5916	Uhandre palmatua	<i>Lissotriton helveticus</i>				*			Favorable
1174	Uhandre marmolairea	<i>Triturus marmoratus</i>		IV		*			Favorable
2353	Uhandre alpetarra	<i>Ichthyosaura alpestris</i>				K	K		Desegokia
1230	Zuhaitz-igel arrunta	<i>Hyla arborea</i>		IV		*			Desegokia
2360	Apo pikarta	<i>Pelodytes punctatus</i>				*			Desegokia
2361	Apo arrunta	<i>Bufo bufo</i>							Favorable
1202	Apo lasterkaria	<i>Bufo calamita</i>		IV		*	K		Favorable
1195	Hegoaldeko apo pintatua	<i>Discoglossus jeanneae</i>		II, IV		*	B		Txarra
1191	Txintxiku arrunta	<i>Alytes obstetricans</i>		IV		*			Desegokia
1211	Ur-igela	<i>Pelophylax perezi</i>		V					Favorable
1213	Baso-igel gorria	<i>Rana temporaria</i>		V		*			Favorable
ARRAINAK									
6262	Amuarraina	<i>Salmo trutta fario</i>							Desegokia
5262	Izatzgorri barboa	<i>Barbus haasi</i>		V			K		Txarra
5283	Barboa	<i>Barbus graellsii</i>		V					Txarra
5292	Loina	<i>Parachondrostoma miegii</i>		II					Txarra
5825	Ibai kabuxa	<i>Salaria fluviatilis</i>				K	GA	A	Txarra
ORNOGABEAK									
1065	Zingira-dontzeila	<i>Euphydryas aurinia</i>		II		*			Desegokia
1078		<i>Callimorpha quadripunctaria</i>		II					Desegokia
1092	Ibai-karramarroa	<i>Austropotamobius italicus**</i>		II, V		K	EP		Txarra

GA: galtzeko arriskuan; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoa. * Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda. **zerrenda desberdinetan bere katalogazioak *Austroptotomobius pallipes*-i egiten dio erreferentzia. *** *Hieraaetus fasciatus*.

Legenda mota	
B	Bertako arrunta edo moderatua
b	Bertako bakana edo bitxia
H	Habiagile arrunta edo moderatua
h	Habiagile bakana edo bitxia
M	Migratzaile arrunta edo moderatua
m	Migratzaile bakana edo bitxia
N	Negutar arrunta edo moderatua
n	Negutar bakana edo bitxia eta/edo ezohikoa
U	Ustekabekoa
¿b?	Bertako espeziea. Habia egitea zalantzazkoa edo berretsi gabea
¿h?	Espezie udatarra. Habia egitea zalantzazkoa edo berretsi gabea

4. ELEMENTU GAKOAK EDO KUDEATU BEHARREKOAK VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENA MENDILERROA BABESTUTAKO NATURGUNEAN (KBE-HBBEn)

Atal honetan kontserbazio-lehentasunak ezartzen dira, hau da, kontserbazio- eta kudeaketa-neurri aktiboak hartzeko beharra duten habitat eta/edo espezie garrantzitsuenen hautaketa egin da.

Lehenespen horiek egin ahal izateko 'elementu gakoak' identifikatu behar izan dira, beste modu batera esanez, kudeatuko diren kontserbazioaren xede diren taldeak. Talde horiek egoera onean mantentzen badira, kontserbazioaren xede diren elementu guztien egoera ona bermatuko da.

4.1. VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA KBE-HBBEko ELEMENTU GAKOAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen eremuaren kudeaketarako elementu gakoak hautatzeko irizpideak:

- Eskualde, estatu eta Batasun mailan Natura 2000 Sarean oso garrantzitsuak diren habitat edo espezieak, eta horien kontserbazio-egoera kaltetuak kudeaketa-neurri aktiboak behar izatea.
- Neurriak ez hartuz gero, kaltetuta daudela edo egon daitezkeela erakusten duen informazio tekniko edo zientifikoa duten habitat edo espezieak.
- Gizakien eraginaren menpe dauden habitat edo espezieak, eta kontserbazio-egoera egoki bat lortzeko edo mantentzeko arautu edo bultzatu behar direnak.
- Taxonomia-taldeen eta ekosistemen osasunaren adierazle diren eta /edo biodibertsitatean dauden presioak detektatzeko erabilgarriak diren habitat edo espezieak eta, ondorioz, monitorizazio-efortzu zehatza eskatzen dutenak.
- Maneiatuz gero, beste habitat edo basa-espezieengan edota eremuaren osotasun ekologikoarengan ondorio positiboak izango dituzten habitat edo espezieak.

Elementu gako bakoitzarentzat kontserbazio-xede zehatzak proposatu dira, eta xede horiek lortzeko neurri batzuk dakartzate.

Elementu gako bakoitzarentzat proposatutako xedeak eta erregulazioak dokumentu honen 6. atalean *Kontserbaziorako-xedeak eta -arauak* garatu dira.

Elementu gakoentzat proposaturiko neurriak '*Gidalerroen eta Kudeaketa Neurrien Dokumentua*' izeneko dokumentuan zehazu dira.

4.2. KBE-HBBEko ELEMENTU GAKOAK

Irizpide horiek jarraituz, **Valderejo – Sobrón- Árcena mendilerroa KBE-HBBEko** honako elementu gakoak definitu dira:

1. Baso naturalak eta erdi-naturalak

- **Karraskadiak, erkameztiak, hariztiak, pagadiak, amildegietako basoak eta**



haltzadiak/sahastiak (9340, 9240, 9230, 9260, 9120, 9150, 9180*, 91E0*¹ eta 92A0 EB KOD).

- ***Pinus pinaster*-en pinudiak** (9540 EB KOD)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Kiropteroak: *Myotis myotis*, *Barbastella barbastellus*.
 - Ugaztunak: basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) eta leporia (*Martes martes*).
 - Baso-hegaztiak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).
 - Ornogabeak: ropalozeroak (*Euphydryas aurinia*, *Euplagia quadripunctaria*).

Arrazoiak

- KBE-HBBEko basoek intereseko fauna espezie askori babes ematen diete, hala nola baso-hegaztien komunitateei, baso-kiropteroei eta anfibioei. Horiek denak eremuko funtsezko elementuak dira.
- Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEn elementu gaketzat hartzen den baso-azalera 1.713,5 ha ditu gutxi gorabehera, hau da, eremu babestuaren azaleraren % 25,6.
- Habitat Zuzentarauaren (92/43/CEE) I. Eranskinean dauden Batasunaren Intereseko habitatek osatzen dituzte baso horiek. Esate baterako, honako hauek: karraskadiak, erkameztiak, ameztiak, gaztainondoak, pagadi azidofiloak eta karezaleak, amilburuaren azpiko basoak eta *Pinus pinaster* espezieen pinudiak. Horien artean, nabarmentzekoa da karraskadiak hartzen duten azalera. KBE-HBBE osoko azalera habitat zabalena da, eta azaleraren % 15 inguru hartzen du (Batasunaren intereseko habitatetatik).
- Mendiek -kasu honetan, pagadiak, hariztiak, ameztiak, karraskadiak, erkameztiak, haltzadiak eta pinudiek- lotura-funtzio garrantzitsua dute eskualde-mailan ezarritako korridore ekologiko nagusien parte diren eremuaren inguruko basoekin. Interes handia dute baso-kiropteroen komunitaterako, baita eremu honetako elementu gisa hautatutako basoetako hegazti-fauna espeziatarako ere.
- Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEaren eremua giltzarritzat jotzen da 9540 EB KOD *Pinu mesogear endemikoko pinudi mediterraneoak* habitata kontserbatzeko.
- KBE-HBBE kudeatzeko elementu gako gisa hautatutako bost kiroptero espezieak Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinen baitan daude. Baso-espezieei dagokienez, *Myotis myotis* eta *Barbastella barbastellus* espezieak galtzeko arriskuan daude Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera.
- Basakatua, Habitat Zuzentarauaren IV. Eranskinean dagoen espeziea eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'Interes bereziko' gisa katalogatua. Espezie horrek zuhaitz hostozabaleko basoekiko hautaketa-eredu positiboa du, eremuaren elementu gaketzat hartzen diren basoak, alegia.
- Muxar grisa (*Glis glis*) 'kaltebera' gisa katalogatutako espeziea da Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Espezie hori oin helduegia duten pagadiak eta hariztiak oso loturik dago. Pagadi karezaleak eta babespe arrokatsuak daudenez,

¹ Sobróneko eremu batean dagoen azalera txiki bat da. 91E0* habitataren gainerakoa ibai-sistemaren elementuaren baitan dago.



eremu hau habitat paregabea da espezie honentzat. KBE-HBBEren lurraldea espeziearen banaketa potentzialaren eremuan baitan dago². Ez dago espezie honen kontserbazio egoera irmoki zehatz aztertzea ahalbidetzen duen informaziorik.

- Lepahoria, adierazitako espezieekin habitatak partekatzen dituzten beste ugaztun batzuk daude, besteak beste, lepahoria (*Martes martes*), Habitaten Zuzentzarauaren V. eranskinaren baitan dagoena. EAeko Katalogoan "Interes Berezik" eremutat jotzen da.
- *Euphydryas aurinia* Habitat Zuzentzarauaren II. eranskineko espeziea da. Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBE eremu garrantzitsua da ropalozero honetarako eta beste batzuetarako EAEn.
- *Euplagia quadripunctaria* Habitat Zuzentzarauaren II. eranskineko espezie bat da. Gainera, lehentasunez jotzen diren artean dago.

KBE-HBBEen ropalozeroen espezie horien presentzia baso-masa autoktonoen eta haien orlan diren zuhaixken egoeraren eta erabileraren adierazle ontzat jo daiteke.

2. Txilardi-otadi-larren mosaikoa

- **Eremu epeleko txilardiak eta sasiak** (4030, 4060 eta 4090 EB KOD.)
- **Sasi esklerofikoak** (5110 eta 5210 EB KOD.)
- **Belar formazio naturalak eta erdi-naturalak** (6170, 6210, 6220 eta 6230* EB KOD.)
- **Lotutako intereseko flora:**
 - *Orchis cazorlensis*, *Paeonia officinalis* *susbp.* *Microcarpa*, *Ephedra nebrodensis*, *Narcissus asturiensis*, *etc.*
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Mendi eta landazabal hegaztiak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).
 - Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.

Arrazoiak

- Habitat Zuzentzarauaren (92/43/CEE) I. Eranskinean dauden Batasunaren Intereseko habitatak. Naturaltasun maila handia dute eta kalteberatasun txikikoak dira, gizakiek izan dezaketen eraginetik urrun dauden mendi-guneetan baitaude. Balio ekologiko handiko flora eta fauna espezieak bizi dira bertan, eta lotutako faunari babesa eta elikagaiak eskaintzen dizkiete.
- Interes botaniko handiko espezieak hartzen ditu bere baitan, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan "galtzeko arriskua" duten espezieak. Horien artean, nabarmentzekoa da *Orchis cazorlensis*. EAEn ezagutzen den kokapen bakarra Valderejo da.
- Ehiza-gune garrantzitsuak dira eremu irekiei loturiko harrapari eta sarraskijale espezieentzat. Halaber, beste hegazti espezie batzuentzat eta berezko narrastientzat babeslekuak ere badira.

² González-Esteban, J., Villate, I., 2001. Muxar grisaren [*Glis glis* (Linnaeus, 1766)] banaketa eta populazio egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Departamentua. Eusko Jaurlaritza. 29 or.



- Habitat horiek abeltzaintza estentsiboaren mantenuaren menpe daude, milaka urtean zehar abeltzaintza-kulturek bertan oreka ezarri baitzuten. Kultura horiek lekua ustiatu eta haren paisaia ospetsua eraldatu dute, eta horren kontserbazioa egun gainbeheran dagoen ekonomia-jarduera horren biziraupenaren menpe dago.
- Txilardiek, otadiek eta belardiek KBE-HBBEn hartutako azalera handia da eta gune horren bereizgarria da, baina haren banaketa denboran aldatzen doa maneiuen eta larreak hobetzeko balizko jarduketan menpe baitago. Gaur egun 1.653,8 ha-ko azalera du, hau da, BNren azaleraren % 24,7.
- Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBE ezinbesteko eremutzat jotzen da 4060, 4090, 5110, 5210, 6210 eta 6220 habitatak kontserbatzeko.
- *Orchis cazorensis* orkidea galtzeko arriskuan dagoen espezie gisa katalogatuta dago Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan. Valderejon da EAEn mantendu den populazio bakarra. Era berean, Valderejon bizi da EAEn ezagutzen den *Paeonia officinalis subsp* espeziearen populazio bakarra. *Microcarpa* ('juncal' sakanean aipatu da).
- Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoak *Ephedra nebrodensis* espeziea galtzeko arriskuan dagoen espezieetat hartzen du. EAeko populazio ezagun bakarra Sobróngo haizpitartean dago.
- Asturiasko lilipa (*Narcissus asturiensis*) Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta dago, eta "interes bereziko" gisa Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan. Beharrezko da espeziearen lehentasunezko habitata babestea eta espeziea aurkitu den leku horiek kontserbatzea.
- KBE-HBBE kudeatzeko elementu gako gisa hautatutako bost kiroptero espezieak Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinen baitan daude. Habitat honekin lotuen dauden espezieei dagokienez -*Rhinolophus hipposideros* eta *Rhinolophus ferrum-equinum*-, interes bereziko espezieetat eta espezie kalteberatzat jo dira, hurrenez hurren, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoaren arabera.

3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak

- **Haitzetako habitatak eta leizeak** (8130, 8210 eta 8310 EB KOD.)
- **Mendiko megaforbioak** (6430 EB KOD.)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Kiropteroak: *Miniopterus schreibersii*.
 - Hegazti-fauna harkaiztarrak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).

Arrazoiak

- Habitat Zuzentarauaren (92/43/CEE) I. Eranskinean dauden Batasunaren Intereseko habitatak.
- Balio ekologiko handiko flora eta fauna espezieak bizi dira bertan, eta lotutako faunari babesa eta elikagaiak eskaintzen dizkiete. Mendi-mazela arrokatsuetako landarediak zailtasunak ditu harkaitz-habitat horietan ezartzeko: oro har motel hazten diren eta sendotasun ahula duten landareak bizi dira bertan, eta gehienbat espezie endemikoak edo bakanak izaten dira.
- Hartxingadiak oso ugariak dira eremuko amilburuen oinarri askotan. Oso habitat ezegonkorak osatzen dituzte, eta labarretatik askatutako blokeoen grabitazio-



pilaketaren menpe daude. Horiek maila ezberdinetan zatikatu eta txikitzen dira. Landare-estaldura maila txikia dute, baina flora oso espezializatua da, ingurune dinamiko honetan bizitzen ohitua dagoena.

- Kontagaitzak dira eremuaren kareharrizko ebakietan dauden koba eta haitzulo txikiak. "Turismoak ustiatu ez dituen kobak" izena dute (KOD EB 8310), garrantzi berezikoak dira eremu honetan dagoen kiroptero komunitaterako (gutxienez 12 espezie) eta horri loturiko faunarako. Berez, fauna hori oso kaltebera da. Valderejo EAeko kiroptero espezieen artean aberastasun handiena duen eremuetako bat da. Hori dela eta, lehentasunezko eremu gisa sartuta dago "EAeko kiropteroen ekintza plana"ren baitan.
- Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEko eremua nagusitzat jotzen da "hartxingadi" (KOD EB 8130), "turismoak ustiatu gabeko kobak" (KOD EB 8310) eta "mendiko megaforbioak" (KOD EB 6430) habitatarako. Azken habitat horren banaketa oso mugatua da, eta balio ekologiko handia duten flora espezieak hartzen ditu bere baitan.
- KBE-HBBE kudeatzeko elementu gako gisa hautatutako bost kiroptero espezieak Habitat Zuzentzarauaren II. eta IV. Eranskinen baitan daude. Nabarmendu beharreko espezieei dagokienez, *Miniopterus schreibersii* espezie kalteberatzen jotzen da Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan.

4. Hezeguneak

- **Habitats lenitikoak** (3140 eta 3150 EB KOD)
- **Habitat higro-zohikatzak** (7210*, 7220* eta 7230 EB KOD)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Anfibioak: Uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*), Hegoaldeko apo pintatua *Discoglossus jeanneae* eta apo lasterkaria (*Bufo calamita*).

Arrazoiak

- KBE-HBBEko hezeguneek arreta berezia behar dute, ingurumenean balio handia baitute; izan ere, kasu batzuetan batasunaren intereseko habitatak izateaz gain, eremua kudeatzeko elementu gako gisa aukeratu diren espezie batzuen habitatak ere badira. KBE-HBBEko hezeguneak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioan sartuta daude; besteak beste, Valderejoko putzuak, Corroko, Lantarónko, Cotilloko, Polledoko eta Cocinillako zingirak, eta Sobróngo urtegia.

Lahozetik hurbil, Valderejoko putzuen multzoko GA16_02 putzuan, hainbat makrofito espezieren dentsitate handiak aurkitu dira (*Potamogeton natans*, *Groenlandia densa* eta *Chara sp*) batasunaren intereseko habitatekin lotuta; besteak beste, EB KOD 3150 *Landaredia flotatzailea duten ur geldiak (edo korrante geldokoak)* eta EB KOD 3140 *Chara spp landareak dituzten ur aligo-mesotrofiko karedunak*. Putzu honek eta beste batzuek anfibioren komunitate aberatseko habitata osatzen dute. Hainbat espezie mehatxatu dituzte, besteak beste, uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*).

- EAeko habitat higro-zohikatzen (KOD. EB 7210*, 7220*, 7230) berezitasuna dela eta -Habitat Zuzentzarauaren (92/43/CEE) I. Eranskineko Batasunaren intereseko habitatak-, egoera guztietan babestu behar dira. Egoera ezin hobean kontserbatzea funtsezkoa da zenbait espezie mehatxaturentzat; besteak beste, zohikaztegiatako sugandilentzat (*Lacerta vivipara*), baso-igel gorrientzat (*Rana temporaria*),



hegoaldeko apo pintatuarentzat (*Discoglossus jeannea*), apo lasterkariarentzat (*Bufo calamita*), eta abar.

Garrantzi handia dute eginkizun hidroerregulatzailerari esker; oso ahulak dira sistema hidrológicoaren eta egoera fisiko nahiz kimikoen aldaketan aurrean. Informazio paleobotanikoaren erregistro biziak dira.

Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEko eremua trabertinoen landaredia (EB KOD 7220*) eta padura basofiloak (EB KOD 7230) kontserbatzeko eremu nagusitzat jotzen da.

- KBE-HBBE eremuko narrastien komunitatean hainbat espezie mehatxatu daude; horietako batzuk Habitat Zuzentarauan eta/edo Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartuta daude. Horietako bat, uhandre alpetarra da, espezie kaltebera gisa katalogatua Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan.
- Azken urteetan KBE-HBBEan lagindutako putzuetan mendebaldeko apo pintatuaren (*Discoglossus jeanneae*) presentzia egiaztatu ez bada ere, Valderejon espezie horren populazioak egon daitezke. Habitat Zuzentaruaren II. eta IV. Eranskinetan sartutako espezie bat da.

Bufo calamita edo apo lasterkariaren espeziea Habitat Zuzentaruaren IV. Eranskinean sartuta dago, eta kaltebera da, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoaren arabera.

5. Ibai-sistema

- **Ibaiertzetako landaredia** (91E0* EB KOD.)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Ugaztunak: igaraba (*Lutra lutra*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*).
 - Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austrapotamobius italicus*).

Arrazoiak

- Beharrezkoa da ibai-sistemaren kudeaketa egokia egitea eremuaren batasun ekologikoa nahiz Natura 2000 Sarearena babesteko eta hobetzeko. Honako hau aipatzen da Habitat Zuzentaruaren 10. artikuluan (92/43/CEE): *Estatu kideak Natura 2000 Sarearen koherentzia hobetzen ahaleginduko dira, baita basa-fauna eta -florarako berebiziko garrantzia duten paisaia elementuen kudeaketa sustatzen ere. Egitura linealaren eta etengabearen ondorioz (adibidez, ibaiak eta ibaiertzak, edo zelaiak mugatzeko ohiko sistemak) migrazioarako, banaketa geografikorako eta basa-espezieen trukatzeko genetikorako funtsezko elementuak dira.*
- Ibai-sistemari loturiko habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ingurumenen dibertsifikazioa bermatzen duten prozesu hidrogeomorfologiko guztiak biltzen ditu.
- Sistemako elementu bakoitza eta haien arteko harremanak kontserbatzeko eta babesteko aukera ematen du, baita, zehazki, elementu-gakoenak ere.
- Korridore ekologikoaren eginkizuna bermatzen du, ibai-sistemen funtsezko ezaugarria. Beraz, alboko ekosistemekiko luzetarako eta zeharkako lotura oinarritzakoa den eremua osatzen du.
- Ur ekosistemaren eta lur ekosistemaren arteko trantsizio eremu gisa (ekotono) biodibertsitate handia du.



- Valderejoren kasuan, ibai-sistema ibarretako paisaiak egituratzeko eta dibertsifikatzeko elementu garrantzitsua da. Gauzak horrela, komeni da argitzea Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEaren 'ibai-sistema' elementu gakoa bereziki ordezkatuta dagoela Purón ibaian eta bere ibaiadarretan, Molinos erreka ahaztu gabe. KBE-HBBEren barruan garrantzi gutxiago duten beste ur-ibilbu batzuk Sobróneko sektorean daude, eta iparraldetik hegoalderako norabidean doazen sakan multzo interesgarriak dira (Torca, Molino eta Valle); oso malkarrak dira, eta 800 metro baino gehiagoko aldea dute Ebroren eta mendizerraren kotarik altuenen artean. Aldizkako ur-ibilgu horiekin loturiko landarediak bat egin ohi du aldameneko serie potentzial klimatikoarekin, eta gutxitan bereiz daiteke ibaiertzeko berezko landaredia.
- Purón ibaiaren kasuarekin jarraitzeko, ibaiertzeko landarediak itsasbazterretan duen presentziak, gainera, ahalbidetu egiten du igaraba euroasiarrarentzako eta presentzia duten arrain-espezie interesgarrientzako babesguneak egotea, besteak beste, amuarrainaren eta barbo buztangorriaren kasuan. Horrez gain, ibaiertzeko landarediak uberuari itzala ematen dio eta makroornogabeei elikagaia; azken horiek arrainen elikagaia dira; uraren kalitatea hobetzen du, uberakara substantzia kutsakor eta solido eseki gutxiago iristea eragiten baitu. Intereseko hegaztientzat ere atseden hartzeko, elikatzeko eta mugitzeko bideak dira, hala nola, martin arrantzalearentzat edo uretako zozoarentzat.
- Purón ibaiertzeko basoak, nagusiki, landare multzo zabala osatzen du. EB KOD. 91E0* batasunerako interes eremuaren, *Alnus glutinosa* baso alubialen eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) espezieen habitatari dagokio. Batasunerako intereseko habitat hori Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean dago (92/43/CEE), eta, gainera, lehentasunezko eremutzat jotzen da.
- Ibai-sistemak, ibai-lurralde gisa ulertuta, zabalera eta jarraipen nahikoa duen eremua osatzen du. Ibai-sistemak ahalbidetuko luke dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzea edo berreskuratzea, ibaiertzeko korridore etengabea (horrek dibertsitate ekologikoa bermatuko luke -Habitat Zuzentaraua-) eta ibai-sistemen eginkizun bioklimatikoa lortzea, egoera ekologiko egokia betetzea (Uraren 2000/60/CE Zuzentaraua), uholdeak naturalki xafraz estaltzea (Uholdeen 2007/60/CE Zuzentaraua), gainezka egin duten eremuak antolatze arazoak konpontzea eta ibai-paisaia hobetzea eta sendotzea³.
- Habitat Zuzentarauan sartutako batasunaren intereseko espezieak elikatzen eta babesten diren ingurunea da. Barbo buztangorriaren kasuan, Habitat Zuzentarauaren V. Eranskinean dago, eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan espezie kaltebera gisa sailkatua. Populazio egonkorreko egoeran dago; populazio urriak edo oso urriak ditu Purón ibaian. Beste alde batetik, nabarmentzekoa da ibaiko karramarro autoktonoa; Habitat Zuzentarauaren II. eta V. Eranskinaren baitan dago, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan "espezie kalteberatzat" jotzen da, eta, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan, berriz, "galtzeko arriskuan" dagoen espeziezkat. Ugaztun taldeari dagokionez, azpimarratzekoa da bisoi europarraren eta igaraba euroasiarraren presentzia; Bi espezieak Habitat Zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan sartuta daude, eta galtzeko arriskuan daude Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoaren arabera.
- Fauna komunitatearen egoera onak adierazten du ibai ekosistema kontserbazio egoera onean dagoela.
- Igaraba euroasiarra, Habitat Zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan sartuta dago, eta "galtzeko arriskuan" katalogatuta EAEn. Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrendan sartuta dago (*otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretua*). Araban, 2004. urtean onetsitako Kudeaketa Plana dago.

³ Ollero A., Ibisate A., Elso J. CIREF 1. Zbk. Ohar teknikoak. *Ibai-lurraldea: berreskurapenerako eremua*.



- Bisoi europarra, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan (II eta IV. Eranskinak, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa) dagoen espeziea. Bere kontserbazioa Europa mailan lehentasunezkoztat jotzen da. "Galtzeko arriskuan" dagoen espezie gisa agertzen da Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan eta EAeko Katalogoan. Arabako Lurralde Historikoan, 2003. urtean onetsitako Kudeaketa Plana dago.
- Ipurtats arrunta, adierazitako espezieen habitat berean dauden beste mustelido erdiakuatiko batzuk daude; besteak beste, ipurtats arrunta (*Mustela putorius*), Habitat Zuzentarauaren V. eranskinean sartuta dagoena. EAeko Katalogoan, espezie "bakan" gisa katalogatuta dago.
- Europan, erreka-errekako karramarro autoktonoa Habitat Zuzentarauaren II. eta V. Eranskinetan sartuta dago. Katalogo Nazionalean⁴, "kaltebera" gisa katalogatutako espeziea da. Euskal Autonomia Erkidegoan, desagertzeko arrisku larrian dago, eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan⁵ galtzeko arriskuan dagoen espezie gisa sartuta dago.

6. Hegazti-fauna

- . Hegazti harkaiztarrak
- . Baso-hegaztiak
- . Mendiko hegaztiak
- . Landazabaleko hegaztiak

Arrazoiak

- Geologikoki, KBE-HBBE eremuan ageriko konplexutasuna dago, hala substratuen bariatateari dagokionez, nola egitura geomorfologikoei dagokienez.
- Gailurreria, erreka-zulo eta ibai-arroila ugari daude; besteak beste, Purón ibaiaren haitzartea, mendilerroa zeharkatzen duena. Ereku horiek habitat paregabea dira hegazti harraparien komunitate esanguratsu baterako. Horien artean, nabarmentzekoak dira nekrofagoak. Horietarako, KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroak baldintza ezin hobekak ditu.
- Hori dela eta, sai arreen eta sai zuri arrunten tokiko populazioak badirudi egonkor mantentzen direla denboran, eta benetako posibilitateak daude KBE-HBBE eremua berriz ere ugatzek kolonizatzeke, kontuan hartuta mendilerro honetan egon zela espezie honen Euskadiko azken unitate ugalkorra. Hona hemen mendilerroan habia egiten duten beste harrapari harkaiztar batzuk: arrano beltza, belatz handia eta hontz handia. Era berean, garrantzitsua da basa-hegaztien eta mendi-hegaztien komunitatea. Gainera, Valderejo haranean dibertsitate ornitiko handiko landazabaleko hegaztien komunitatea dago.
- Arrano-aztorea edo Bonelli arranoa azken garaian atzerakada handiena izan duen harrapari iberriarretako bat da. 70eko hamarkada amaieratik ezaguna da Toloño mendilerroa arrano-aztorearen hazkuntza lurraldea dela, 'Arabako mendebaldeko mendilerroak' ES-21000246 HBBEren baitan, eta gaur egun Araban okupatutako

⁴ Otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretua, Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzeko.

⁵ AGINDUA, 2013ko ekainaren 18koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa aldatzeko.



<p>bakarra da. Lurralde hau Araban eta Burgosen barrena hedatuta dago, eta bi probintzietan ditu habiagintzako areak. Arrano-aztoreak (<i>Aquila fasciata</i>) hazkuntza eremua izan du Sobrónen, gutxienez 70eko hamarkadatik duela gutxi arte.</p>	
<p>Hegazti harkaiztarrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hegazti talde hau oso garrantzitsua da kontserbazioari dagokionez; izan ere, gaur egun harrapari harkaiztar europar gehienak kontserbazio egoera txarrean daude, eta, kasu askotan, Espainian daude populazio handienak kontinente mailan. Gauzak horrela, nabarmentzekoa da hegazti sarraskijale espainiarren populazioek EBn espezie horien gehiengo osatzen dutela (arrano beltza barne, aldizkako sarraskijaletzat har daitekeelako, eta, Europako populazioaren % 50 gainditzen du): % 98 arrano beltzak, % 94 sai arreak, % 82 sai zuriak eta % 66 ugatzak. - Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroko KBE-HBBEn, honako hauek egiten dute habia: sai zuriak (<i>Neophron percnopterus</i>), sai arreak (<i>Gyps fulvus</i>), arrano beltzak (<i>Aquila chrysaetos</i>), belatz gorriak (<i>Falco tinnunculus</i>), beltz handiak (<i>Falco peregrinus</i>) eta hontz handiak (<i>Bubo bubo</i>). Noizean behin, honako hauek ere ikus daitezke: ugatzak (<i>Gypaetus barbatus</i>), Bonelli arrano-aztorea (<i>Aquila fasciata</i>) eta abar. <p>Espezie horiek guztiak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jaso dira. Ugatza eta Bonelli arrano-aztorea Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan galtzeko arriskuan dauden espezie gisa agertzen dira, eta bakoitzak dagokion kudeaketa plana du onetsita. Sai zuria eta arrano beltza katalogo horretan kaltebera gisa jasotzen da. Hontz handia espezie bakana da EAEn, eta sai arrea interes bereziko gisa agertzen da.</p>
<p>Baso-hegaztiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - HBBEko baso falkoniformeen komunitatea aberatsa eta askotarikoa da. Lekuaren zuhaitz eraketen dibertsitateari eta paisaiaren heterogeneotasunari esker, habi ekologiko interesgarriak sor daitezke hegazti talde honetarako. <p>Talde honen baitan, EAEn mailan katalogatutako basoko espezie ugari daude.</p>
E.1.- *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko 45.2 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Natura 2000 Sareko tokiak Babestutako Naturguneak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-plangintzak egoera hori islatuko dute, eta ziurtatuko dute toki horietan natura-habitaten motak eta eremu horietako espezieak kontserbatuko direla; horretarako, agiri honetan finkatzen diren kontserbazioko xedeak eta neurriak txertatuko dira.*

E.2.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko 19.2 artikuluan ezartzen denaren ondoretarako, Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEren Eremu Periferikoa zehaztu da; 100 metroko zabalera duen babes-banda bat da, guneko kanpoko mugatik neurtu dena, KBE-HBBEren Mugarriztatze Mapan jaso den moduan.*

Zehaztu den Babesteko Eremu Periferikoan, Habitaten Zuzentzarauko 6.2 eta 6.3 artikuluetako prebentzio-araubideak jardungo du, baita eremu horri dagozkion eta agiri honetan ezarri diren babes-arauak ere.

E.3.- *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko 45. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, izan banaka izan beste plan edo proiektu batzuekin batera, nahiz eta Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEren kudeaketarekin harremana ez izan edo horretarako beharrezkoa ez izan, behar bezala ebaluatuko dira modu aipagarrian eragin diezaiokkeen edozein plan, programa edo proiektuk bertan izan ditzakeen ondorioak, bertako kontserbazio-xedeak aintzat hartuta.*

Ebaluazio horren ondorioak ikusita eta aipatu 45. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren mende egonda, planak, programak edo proiektuak onetsi edo baimentzeko organo eskudunek horiekin bat datozela adierazi ahal izango dute kasuan kasuko tokiaren osotasunari kalte egingo ez diola ziurtatu ondoren soilik, eta hala badagokio, jendaurrean ikusgai jarri ostean.

E.4.- Antolatutako kirol-ekitaldi orok organo kudeatzailearen baimena izan beharko du, esaterako, mendi-lasterketek, orientazio-lasterketek, mendi-ibilaldiek eta beste batzuek, baita



zati bat edo osorik BNren eremuan egiten den erabilera publikoko merkataritza-jarduera orok ere.

Baimenak jardueren ibilbidea baldintza dezake, BNko kontserbazio-elementuen eta zonifikazioko eskakizunen arabera; babes bereziko eremuak ekidin beharko dira (Erreserba Integrala, Erreserba, Babeseakoak edo espezieak babesteko beste eremu zehatz batzuk). Era berean, baimenak guneei eta kontserbazio-elementuei eragin diezaieketen afekzioak identifikatuko du, behar diren neurri prebentiboak eta zuzentzaileak ezarriko ditu, eta jarduerak elementu gakoetan duen inpaktuaren jarraipen-protokoloa diseinatuko du.

E.5.- Debekatuta dago ehiza- edo arrain-faunako espezieak eta/edo barietateak askatzea edo horiekin birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izanik ere, baldin eta mehatxua izan badaiteke BN-n dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieentzat.

Fauna BN-n halabeharrez edo legez kanpo sartuz gero, oro har, ez da ehiza- edo arrain-ustiapena baimenduko, eta espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatuko dira, espezie horiek desagerrarazteko asmoz.

E.6.- Motordun ibilgailuen joan-etorria soilik baimenduko da bide nagusian (A-4338 Donemiliagatik Lalastrara eta Lahozera), eta Sobróngo sektoreko errepide hauetan: A-2122an (BU-530) eta A-4324an (Sobrón Goikorantz). Eremuko basozainek arautu eta kontrolatuko dute ibilgailuen joan-etorria.

E.7.- KBE-HBBEren eremuan dauden gainerako pista, bide eta basabideetatik debekatuta egongo da motordun ibilgailuak edo antzeko edozein ibilgailu mota igarotzea, betiere Babestutako Naturgunearen organo kudeatzaileak behar bezala baimentzen dituen salbuespen kasuetan izan ezik.

E.8.- Oholesiak, hesiak eta itxiturak instalatzeari dagokionez, beharrezko baimena lortzeko ez dute arrisku larrikeria eragingo faunan. Horretarako, kontuan hartuko dira neurriak, altuera, intentsitatea edo tentsioa. Era berean, linea elektrikoen dorretxoetan gailu bereziak jarriko dituzte, hegaztiak elektrokuta ez daitezen.

E.9.- Debekatuta dago eremuko baretasuna eta lasaitasuna asaldatzea honako hauek erabiliz: ihes askeko ibilgailuak, megafonoak, turutak, musika-tresnak, irrati-gailuak edo bolumenagatik enbarazu egiten duten antzekoak.

E.10.- Debekatuta dago Valderejon ehizan aritzea, basurdeak, galeperrak eta oilagorrak izan ezik, betiere Valderejoko Parke Naturaleko Ehiza-baliabideen Planak (Parkearen organo kudeatzaileak egina) ezartzen dituen leku eta egunetan.

E.11.- Lurraren jabeak eta erabiltzaileak tartean sartzen dituzten kudeaketa-formulak bultzatzeko dira, BNko kontserbazioa, balioak eta natura-baliabideak egoki erabiltzeko engaia daitezen. Ildo horretatik, formulak bultzatzeko dira sektore pribatuak eta udalek



Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa BN kontserbatzeko finantza-eta/edo kudeaketa-jarduketetan parte hartzea errazteko, baita herritarrek laguntzea ere, jarduketak gauzatzean boluntario gisa parte hartuta. Azken finean, lursail-zaintzako borondatezko akordioak sustatuko dira, jabeen, zaintza-erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzaren alde egiten dutenak.

E.12.- Europako Batzordeak definitutako Batasuneko kofinantzatze-bideak aplikatuko dira, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) izendatzeko xedeak erdiesteko behar diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez gauzatzeko asmoz.

E.13.- BKE-HBBEri eragiten dioten eragile eta sektoreen (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, ehiza, turismoa, etab.) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, Babestutako Naturgune horretarako planteatu diren kontserbazio-xedeak lortzeko, baita KBE-HBBE izendatzean hartzen diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko ere.

R.14.- Informazio- eta sustapen-jarduketak biltzen dituen Komunikazio Plan bat definituko da, eta Batasuneko laguntzen eta beste laguntza publiko batzuen onuradun izan daitezkeenei zuzenduko zaie, KBE-HBBEko ezarri diren kontserbazio-xedeak erdiesten lagun dezaketen neurriak aplikatze aldera.

E.15.- Era berean, eta aurreko epigrafeetan adierazitakoari eragin gabe, beharrezkotzat jotzen da neurriak bultzatzea Administrazioak balio ekologiko handiko lursailak eskuratzeko, errentan hartzeko, horien gaineko gozamen-eskubideak izateko, zortasuna lortzeko edo antzeko beste figura batzuk sortzeko, batik bat oso mehatxatuta dauden KBE-HBBEko elementu gakoetarako puntu kritikoak dauden edo puntu kritikoak diren lursailak badira, edota aukera-irizpideak direla-eta gomendagarria bada.

E.16.- Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa KBE-HBBEren paisaia berezia kontserbatzeko asmoz, mosaikoan antolatutako txilardi, otadi eta bazkaleku menditar guztietan aktiboki bultzatuko da ohiko erabilerei eustea (abeltzaintza estentsiboa, erlezaintza eta abar), betiere aipatu habitatak kontserbatzen laguntzen badute edo kontserbazioarekin bateragarriak badira.

E.17.- *Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko* 46. artikuluekin bat etorriz, dagozkion ahaleginak egin behar dira Natura 2000 Sarearen kanpoko eta barneko koherentzia ekologikoa kontserbazioaren bidez hobetzeko, eta hala badagokio, migrazioarako, distribuzio geografikorako eta basafauna zein -florako espezieen populazioen arteko truke genetikorako funtsezkoak edo garrantzi handi-handikoak diren paisaiako elementuak eta lurralde-eremuak garatuz; hortaz, helburu hori lortzera bideratuta dauden neurriei erreparatu behar zaie.

Hartara, hala KBE-HBBEren eremuan nola naturgune horren eta Natura 2000 Sareko gainerako guneen arteko lotura ekologikoko



eremuetan, neurri zehatzak hartuko dira konektibitate ekologikoaren alde egiten duten lurraldeko elementuak babesteko edo berreskuratzeko (ibaiertzetako landaredia, baso-espezie autoktonoetako zuhaiztiak, hesi naturalak lursailletako mugetan eta landa-bideetako ertzetan, etab.).

KBE-HBBErekin lotzeko korridore ekologikoak diren eremuetan, Habitaten Zuzentarauko 6.3 artikulua prebentzio-araubideak jardungo du. Xede horretarako egoki suertatzen diren finantzatze-bideak ezarriko dira.

E.18.- KBE-HBBEn ikerketa-jarduerak bultzatuko dira. Babestutako gunean kontserbazio-jarraibideak ezartzeko eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zehazteko eta jarraipena egiteko erabiliko diren proiektuak lehenetsiko dira. Ziurtatuko da ikerketa-, plangintza- eta kudeaketa-azterlanen prozesuak, faseak eta emaitzak dibulгатuko direla.

E.19.- Administrazio publikoek garatzen dituzten ingurumen-heziketako programek Natura 2000 Sareari eta KBE-HBBEn dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitaten eta espezieen biodibertsitatea kontserbatzeko balioari buruzko ezagutza hobetzeko edukiak jasoko dituzte, eta horiek babesteko behararren inguruan gizarteari kontzientzia hartzea izango dute xede.

Programa horien hartzaileak herritarrak izango dira, oro har, eta KBE-HBBEren eremuan garatzen diren erabilerekin eta jarduerekin zerikusia duten sektoreetako langile teknikoak ere bai.

Orobat, babestutako naturaguneen kudeaketarekin lotuta dauden administrazioetako langile teknikoek ere helaraziko zaizkie Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak, bai eta Erregulazioak eta Kudeaketa Neurriak erdiesteari buruzko informazioa ere.

E.20.- Zaintza-lanak intentsifikatuko dira KBE-HBBEko eremuan, baimenduta ez dauden erabilerak eta praktikak saihesteko, baldin eta tokia izendatzeko arrazoi diren habitaten eta espezieen kontserbazio-xedeak arriskuan jar baditzaizkete.

E.21.- Lurraldean desagertuta dauden animalia- eta landare-espezieak berreskuratzen eta berriz sartzeko ahaleginduko dira, betiere eremuko helburuekin bateragarria bada eta egungo natura-egoerak ahalbidetzen badu.

E.22.- Beharrezkoak diren azterketa botanikoak eta faunari buruzkoak egingo dira arrisku-egoera handiengan dauden eta horiek babesteko berriazko neurriak behar dituzten floraren eta faunaren elementuak nahiz inguruak zehazteko.



XEDE ETA ERREGULAZIO PARTIKULARRAK KBE-HBBEko ELEMENTU GAKOAK DIRELA ETA

1. Basoak

- **Karraskadiak, erkameztiak, hariztiak, pagadiak, amildegietako basoak eta haltzadiak/sahastiak** (9340, 9240, 9230, 9260, 9120, 9150, 9180*, 91E0*⁹ eta 92A0 EB KOD).
- ***Pinus pinaster*-en pinudiak** (9540 EB KOD)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Kiropteroak: *Myotis myotis*, *Barbastella barbastellus*.
 - Ugaztunak: basakaturia (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) eta leporia (*Martes martes*).
 - Baso-hegaztiak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).
 - Ornogabeak: ropalozeroak (*Euphydryas aurinia*, *Euplagia quadripunctaria*).

Xedeak eta erregulazioak

1. azken xedea	<p>BKE-HBBEko baso naturalen kontserbazio-egoera hobetzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baso naturalek hartutako azalera osoa handitzea. - Baso-masa autoktonoen egitura eta konposizioa hobetzea. - Onenen kontserbatutako guneen egungo egoerari eustea.
1.1 xede operatiboa	<p>Baso naturalek hartutako azalera osoa handitzearen alde egitea eta onenen kontserbatutako guneen egoerari eustea.</p>
Erregulazioak	<p>1.E.1.- Debekatuta dago arraseko mozketak egitea eta erabilera aldatzea zuhaitzia dagoen Batasunaren intereseko habitatetan, eta KBEen dauden baso autoktono guztietara hedatzen da debekua.</p> <p>1.E.2.- Mozketak, eta, oro har, edozein motatako basolanak, ahal bada, geldialdi begetatiboaren garaian egingo dira, eta ez dute gaindituko, oro har, Antolamendu Egitasmoak ezartzen duen urteko erauzketa kopurua.</p> <p>1.E.3.- Ez da baimenduko landaketa berriak egitea baso-espezie aloktonoekin, KBE-HBBE izendatzean beste erabilera bat zuten OPMko lursailetan; bereziki, ezingo da egin bertakotzeko eta ugaltzeko gaitasuna duten espezie inbaditzaileekin. Hala, eremu horietako birpopulatzeek espezie autoktonoak eta eskualde bakoitzean, Mediterraneoko eskualde biogeografikoari dagozkion komunitateetako landaredi-serieetan oinarritutako landaketa-moduluak erabiliko dituzte.</p> <p>1.E.4.- Zuhaitz-masetan ezinbestean egin beharreko tratamendu fitosanitarioetarako, organo kudeatzaileak emango du berariaz baimena. Soilik emango da baimena behar bezala azal dutako</p>

⁹ Sobróneko eremu batean dagoen azalera txiki bat da. 91E0* habitataren gainerakoa ibai-sistemaren elementuaren baitan dago.



	<p>arrazoiak badaude, eta kontserbazio objektuen inguruko kalte ekologikoak saihesteko baldintza murriztaileak ezarriko ditu.</p> <p>1.E.5.- Mendi babesleen eremuetan, baso-masen tratamendua egokitzen jotzen bada, mendi altu irregularraren trataera izango du, eta miaketazko bakanketa egingo da.</p> <p>1.E.6.- Baso-ekoizpenerako eremuetako basa-eremuetan, baso-ustiaketek eta bestelako baso-jarduketek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nahasitako masetan, espezie nagusia hautatzeko, lehenik naturaltasun-egoera aztertu behar da, eta masen eboluzioaren joera aztertu. • Beraz, baso-zainketen bidez, potentzialki kokapen horretan egon beharko lukeen espeziearen iraunkortasunari bide emango zaio. Legeak babestutako landare-espezieak errespetatuko dira, baita basa-faunarentzat elikagai edo babes direnak ere. • Bi espeziaren arteko kontaktu-zerrendetan, baso mistoa kontserbatuko da. • Zenbait espezie motaz osatutako zuhaitz-masaren baitan dauden unadak kontserbatuko dira, betiere kokapena justifikatzen duten ingurumen baldintzen ondorioz existitzen badira. • Zuhaitz-masa guztietarako metodo onuragarria mendi altuarena izango da. <p>1.E.7.- Baso naturalen eta erdinaturalen egungo azalera areagotzeko eta egitura nahiz eginkizunak hobetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Horretarako, KBE-HBBEn dauden baso masen kontserbazioari eta eboluzio naturalari bide emango zaio.</p> <p>1.E.8.- Birpopulazioko konifera-masak pixkanaka ordezteko sustatuko da, zuhaitz hostozabal naturalekin, zuhaitz hostozabalak landatzea sustatuz eta hariztien zein baso mistoaren zuhaiztiak eta zuhaixka-formako hesiak kontserbatuz, basoko lursailen jabeekin hartutako akordio egokien bidez.</p> <p>1.E.9.- Balio ekologiko handiko lursailletako lurak eskuratzeko egungo politikan, lehentasuna emango zaio kontserbazio-egoera onean dauden Batasunaren intereseko habitatek barne hartzen dituzten lurak eskuratzeari, edo oso mehatxatuta dauden KBE-HBBEko elementu gakoetarako puntu kritikoak diren lursaileri, edota aukera-irizpideak direla-eta gomendagarria bada.</p>
<p>1.2 xede operatiboa</p>	<p>Baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Onenen kontserbatutako guneen egungo egoerari eustea.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>1.E.10.- Baso-baliabideen antolamendu-planak eta mendien antolamendurako proiektuak edo plan dasokratikoak onetsiko dira baldin eta eremuaren osotasunari kalterik eragingo ez diotela ziurtatzen bada; horretarako, eta hala badagokio, ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioaren prozedura aplikatuko da.</p>



1.E.11.- Oro har, ez da baimenduko habitataren azalera txikiagotzea dakarten edo egiturazko konplexutasuna arriskuan jartzen duten baso-aprobetxamenduak egitea gaztainadietan, amilburuetako basoetan, *Pinus pinaster*ren basoetan eta abar; bereziki babestuko dira faunarako interesgarrienak diren ale urtetsuak. Ildo beretik, ez da baso-aprobetxamendurik baimenduko erkameztietan eta artadietan, egur-sorten eskaerekin loturikoak izan ezik, baldin eta zuhaitz-masaren heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna behar bezala garatuko direla ziurtatzen bada.

1.E.12.- Baso-baliabideen antolamendu-planek eta mendien antolamendurako proiektuek edo plan dasokratikoek honako hauek egin beharko dituzte:

- a)** Natura ingurua kontserbatzeko irizpideak aintzat hartzen dituen baso kudeaketa sustatzea, eremuan dauden baso-masa autoktonoen kontserbazio eta eboluzio naturalari bide emanez. Era berean, helburua da ahalik eta biodibertsitate handiena lortzea, baita baso-masen osasun egoera eta birsortze egokia lortzea ere.
- b)** KBE-HBBEren eremuan dauden baso-masak, lekuari dagozkion espezie autoktonoak dituen mendi altu bilakatzen sustatuko da, bertako landaredi-seriea izan daitekeenari dagozkion espezieekin.
- c)** Batasunaren intereseko habitatak osatzen dituzten natura masen egituraren eta dibertsitatearen konplexutasuna areagotzea, zehazki, pagadiak, hariztiak, ameztiak, gaztainadiak eta abar (masan zehar zenbait adin sorta banatzea eta egur hilaren kopurua areagotzea bermatuko da, hala zutik nola lurrean daudenena; halaber, espezie laguntzaileak mantendu eta landatuko dira, masen berariazko dibertsitateari eusteko).
- d)** Basogintzaren maneiotik kanpo uztea basoaren % 5-10 bilakaera naturalari bide emateko. Pizido-espezieak kontserbatzeko, komeni da basoaren bilakaera naturala 1 ha baino gehiagokoa izatea.
- e)** Ale urtetsuak, adartsuak, zulodunak edota gainbehera egoera aurreratuan daudenak errespetatzea eta kontserbatzea azken mozketak egin ondoren, basahegaztientzat, eta, bereziki, kiropteroentzat, onuragarriak dira eta. Salbuespen gisa ezarri dira pertsonentzat edo ondasunentzat arriskua ekar dezaketen aleak edota ibilguen ur bolumena arriskuan jar dezaketenak, zubiak edo buxa daitezkeen eta uholdeen eragina areagotu dezaketen beste elementu batzuk egoteagatik.
- f)** Egur hilaren presentzia areagotzea, lurrean nahiz zutik daudenena, baso-masak pixkanaka heltzen direla eta egur hilaren ustiaketarekin loturiko espezieak



	<p>mantentzen direla bermatzeko. Horretarako, abandonatu egingo da baso-lanak egin ostean, eta pilatzea saihestuko da. Aurretik zeuden zur hilaren hondakinak errespetatuko dira.</p> <p>g) Gauzatzen diren lanetan, laguntzaile diren espezie autoktonoak, zuhaixka-formako espezieak eta zuhaitz-espezieak errespetatzea, beharrezkoak baitira basoko biodibertsitateari eusteko.</p> <p>h) Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuen populazioak dituzten enklabeak identifikatzea eta babestea.</p> <p>i) Baso-lanen egutegia egokitzea afekzioak ekiditeko espezie hauen aldi kritikoetan: babestutako hegazi errupikolak (sai zuria, martxoaren 1etik irailaren 1era artean; sai arrea, urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean), babestutako baso-hegaztiak (martxo-ekaina) eta kiroptero zuhaitzarrak (udan).</p> <p>j) Solido esekien, fitosanitarioen eta pestiziden ekarpena minimizatzea ibai-sarean, eta beharrezko suertatzen diren neurriak hartzea solido esekiak daramatzaten jariatze-urak lurrazaleko uretara iristea ekiditeko.</p> <p>k) Zura ateratzeko metodo alternatiboak sustatuko dira, baso-pistak eraikitzea minimizatzen dutenak, Batasunaren intereseko habitatak eta/edo espezieak dauden eremuetara sartzea eta zatikatzea mugatze aldera.</p>
<p>1.3 xede operatiboa</p>	<p>KBE-HBEEen dauden baso-kiroptero mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta zuhaitz-masen ezaugarri jakinak babestea baso-espezieen eta espezie zuhaitzarren eskakizunei erantzuteko, arreta berezia jarrita honako hauetan: <i>Myotis bechsteinii</i>, <i>Barbastella barbastellus</i>. Era berean, hezkuntza jarduerak sustatuko dira kiropteroenganako jokabide gizatiarrak hobetzeko.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>1.E.13.- Nekazaritza eta basozaintzako intsektizidak kopuru handitan erabili aurretik, eremuaren organo kudeatzaileak ebaluatuko du kiropteroen komunitateetan izan dezakeen afekzioa, eta dosia edota hori aplikatzeko eremuak nahiz erabili beharreko produktua muga ditzake. Era bertsuan, debekatuta dago eraikinetako zur-egiturak intsektizida organokloratuekin tratatzea.</p> <p>1.E.14.- Bereziki aplikatzekoa da erregelamenduaren 1.E.12.h. puntua, baso-aprobetxamenduak egin bitartean kiroptero zuhaitzarren enklabeak eta ugalketa-datak errespetatzeari dagokionez.</p> <p>1.E.15.- Kiropteroak hartzen dituzten eraikinen kasuan, ez da zaharberritze-lanik egingo, eta, egitekotan, ez dira animaliak ugaltzeko garaian egingo (martxoa-uztaila). Horretarako, elizetako</p>



	<p>gangetan ez dira faunaren sarbideak itxiko, eta, beharrezkoa balitz, habia-kutxak jarriko dira.</p> <p>1.E.16.- KBE-HBBEko kiropteroak kontserbatzearen garrantzia zabaldu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzailea gizartea izango da, oro har, eta bereziki, eremuaren erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta are, euren jarduerak espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak.</p>
1.4 xede operatiboa	<p>KBE-HBBEko ugaztun mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzeko, espezieei eragindako inpaktuak ezabatzea BNn, espezie hauentzako intereseko habitaten azalera handitzea eta kontserbazio-neurriak sustatzea.</p>
Erregulazioak	<p>1.E.17.- Aldian-aldean, mehatxatutako ugaztunen populazioen erroldak eta inbentarioak egitea, eta arreta berezia jartzea mehatxu-maila handiena duten Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieetan. Nagusiki, alderdi hauei erreparatuko zaie: distribuzioa, populazioen kontserbazio-egoera, eta presioak zein mehatxuak.</p> <p>1.E.18.- Beharrezko neurriak hartuko dira babestutako espezieen artean pozoitze-gertaerak saihesteko. Hala, babestutako naturgunearen barnean pozoia erabiltzeak dakartzan ondorioei buruzko prestakuntza eta informazio jarduerak sustatuko dira, betiere abeltzain eta ehiztariei zuzenduta.</p> <p>1.E.19.- Interes handieneko faunaren biologiari eta mehatxuei buruzko ezagutzak hobetzea xede duten azterlanak egingo dira, bereziki, lurraldea kontserbatzeko neurriak hobeto definitzea eta aplikatzea dakarten alderdien gainekoak.</p>
1.5 xede operatiboa	<p><i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Euplagia quadripunctaria</i> lepidopteroen populazioak kontserbatzea KBE-HBBEn, baita espezie horien habitata kontserbatzea ere</p>
Erregulazioak	<p>1.E.20.- Debekatuta dago <i>Euphydryas aurinia</i>, <i>Euplagia quadripunctaria</i> aleak eta KBE-HBBEn mehatxatuta dauden gainerako ale ornogabeak harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako aleak hiltzeko, jazartzeko edo haiei enbarazu egiteko eta baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago haien habitata suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atsedena- edo elikatze-eremuak.</p> <p>1.E.21.- KBE-HBBEn Batasunaren intereseko ornogabe-espezieen habitat, distribuzio, ugaritasun eta kontserbazio-egoeraren ezagutza hobetzeko beharrezkoak diren jarduketak egingo dira.</p>



2. Txilardi-otadi-larreen mosaikoa

- **Eremu epeleko txilardiak eta sasiak** (4030, 4060 eta 4090 EB KOD.)
- **Sasi esklerofikoak** (5110 eta 5210 EB KOD.)
- **Belar formazio naturalak eta erdi-naturalak** (6170, 6210, 6220 eta 6230* EB KOD.)
- **Lotutako intereseko flora:**
 - *Orchis cazorlensis*, *Paeonia officinalis* *susbp.* *Microcarpa*, *Ephedra nebrodensis*, *Narcissus asturiensis*, etc.
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Mendi eta landazabal hegaztiak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).
 - Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.

Xedek eta erregulazioak

2. azken xedea	Ziurtatzea txilardi hezeen eta mendiko larreen egungo azalera osoaren kontserbazioa, baita horien arteko mosaikoa, habitaten nahiz lotutako espezie mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoerarekin bateragarriak diren abeltzaintzako kudeaketa-jarraibideak ezarri.		
2.1 xede operatiboa	Ohiko erabilerak sustatzea (abeltzaintza, erlezaintza eta abar). Horrela, txilardi hezeen eta larre menditarren multzoaren azalera eta mosaiko-egitura kontserbatzea bermatuko da. Horretarako, kontserbazio egoera onarekin bateragarriak diren kudeaketa-jarraibideak ezarriko dira.		
Erregulazioak	<p>2.E.1.- Debekatuta dago KBE-HBBE Babestutako Naturgunearen barnean turismo-kanpalekuak instalatzea, baita KBE-HBBEren eremuan etxolak, karabanak, atoiak, babes-lekuak eta itzalkinak jartzea edota kanpatzea ere.</p> <p>2.E.2.- Debekatuta dago sua piztea, eremuan tradizioz baimendutako erabileretarako izan ezik. Edonola ere, erabat debekatuta egongo da sua erabiltzea landareak edo landare-hondakinak erretzeko edota bazkalekuak birstortzeko.</p> <p>2.E.3.- Ez dago baimenduta KBE-HBBEren barnean hondakin solido eta/edo likidoen hondakindegia jartzea, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietatik datozen hondakin solido eta/edo likido berrerabilgarrien kasuan izan ezik; besteak beste, ongarri organikoa. Haien kontrolatutako leku batean gordeko dira lursailean jarri arte.</p> <p>2.E.4.- Debekatuta dago KBE-HBBEren esparruan bizirauteko ariketak egitea.</p> <p>2.E.5.- KBE-HBBE osorako Larreen Antolamendurako Plana onesten ez den bitartean, herri eremuko gehienezko abeltzaintza-karga honako hau izango da (ALU/ha-tan adierazita):</p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <tr> <td style="width: 50%; text-align: center;">Eremuak</td> <td style="width: 50%; text-align: center;">ALU /ha</td> </tr> </table>	Eremuak	ALU /ha
Eremuak	ALU /ha		



Anderejo eta Sotillo	0,25
Polledo eta Cubo	0,20
Acebal, Encinal de Ribera, Collado, Santa Ana hegoaldea eta Lahoz	0,15
Santa Ana iparraldea	0,10

BNren baitako Árcena mendilerroaren gainerakoari dagokionez, aipatu planetik eratorritako daturik ez dugun bitartean, adierazitako eremurako gehieneko abeltzaintza karga (ALU/ha) 0,5koa izango da.

2.E.6.- Honako baldintzatzaile hauek ezarri dira nekazaritza eta abeltzaintza erabilera izango duten lursailetan:

- Urteko laborantzarako (zereala, koltza eta abar) lurzorua babesteko neurriak ezarriko dira % 3ko malda baino gehiago duten lekuetan.
- Malda % 3 eta 5 artekoa bada, maldaren lineen arabera goldatu egin beharko da.
- Malda % 5 eta 12 artekoa bada, hustubide eta infiltrazio terrazak egingo dira, higadura kontrolatzeko.
- Edonola ere, urteko laborantzarako, % 12ko malda onartuko da gehienez ere.
- Urte anitzetarako edo noizbehinkako nekazaritza erabileretarako (bazka-espezieenak eta lurzorua 3 eta 6 urte arteko zikloetan eraiten edo goldatzen den beste kasu batzuenak), % 18ko malda baimenduko da gehienez ere.
- Ustiatzeko laborantzak modu berean ustiatuko dira, eta naturgunearen organo kudeatzaileari emango zaio laborantza aldatzeko edozein egitasmoren berri.
- Lursailak eta zuhaitziak banatzeko hesiak kontserbatu egingo dira.
- Pestizidak eta ongarriak erabiltzeko baimenak arautuko dira, bai eta ureztatzeko uraren kontsumoa ere.

2.E.7.- KBE-HBBEko larreen eta sastrakadien ustiaketak bermatu egingo du ingurumen-balioak babestearekin bateragarri izango dela. Horren harira, eutsi egingo zaio larreen, txilardien, txilardi hezeen eta inguru horretan dauden beste eremu heze batzuen mosaiko-gisako egitura irregularrari, eta ingurumen-ikuspuntutik sentiberenak diren enklabeak babestuko dira (eremu hezeak, mehatxatutako flora- eta fauna-espezieentzat interesekoak diren enklabeak, etab.).

2.E.8.- Birsortze ekologikoaren prozesu naturalak errespetatu egingo dira, laborantza, larre eta bazkalekuetara bideratutako eremuak izan ezik edo lehengoratzeko ekintzak abiarazten dituztenak izan ezik.

2.E.9.- Erlezaintza garatzearekin zerikusia duten neurriak sustatuko dira, flora-espezieen polinizazioa ziurtatzeko eta Batasunaren intereseko habitatek bizirauten dutela bermatzeko. Arreta berezia jarriko da basoetan, txilardietan, otadietan eta larreetan.

2.E.10.- Ganadurako instalatzen diren itxitura berrietarako, naturgunearen organo kudeatzailearen baimena beharko da, eta



	basa-fauna bertatik igarotzen utziko dute.
2.2 xede operatiboa	Kontserbaziorako balio handiagoa duten kokalekuen lore osaera ezagutzea eta haiekin loturiko flora populazioen jarraipena egitea. Era berean, <i>Orchis cazorlensis</i> , <i>Narcissus asturiensis</i> , <i>Paeonia officinalis subsp. Microcarpa</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioen bilakaera ezagutzea KBE-HBBEn. Horrez gain, espezie horien eremu potentzialaren prospekzioan eginiko esfortzua areagotuko da.
Erregulazioak	<p>2.E.11.- <i>Orchis cazorlensis</i> espeziea babestu eta berreskuratzeko jarduketak "EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori kritikoan' gisa sailkatuta dagoen floraren berreskuratze-planak idazteko oinarri teknikoak" (IHOBE, 2011ko otsaila) erreferentziako agirian jasota dauden berreskuratze-plan zehatzei jarraikiz gauzatu dira.</p> <p>2.E.12.- KBE-HBBEko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gunen hori espeziea kontserbatzeko eremutat joko da. Zehaztutako kontserbazio-eremuan egin nahi den erabilera edo jarduera oro baimenduko da baldin eta populazio horiek berreskuratzeari negatiboki eragiten ez badiote; BNren organo kudeatzaileak erabakiko du hori.</p> <p>2.E.13.- KBE-HBBEko flora-populazio mehatxatuaren ezagutza hobetzera bideratutako jarduerak bultzatuko dira eta mehatxatutako espezieen inbentarioa aldi berean behin eguneratuko da; horretarako, nagusiki, distribuzioari, populazioen kontserbazio-egoerari, eta jasaten dituzten presioei zein mehatxuei erreparatuko zaie.</p>
2.3 xede operatiboa	<i>Orchis cazorlensis</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen landaretxoak ernetzeko eta ereiteko protokoloak garatzea.
Erregulazioak	Aplikatzekoa da 2.E.11 erregulazioa, <i>Orchis cazorlensis</i> espeziea berreskuratzeko planean (IHOBE, 2011ko otsaila) adierazitako babes- eta berreskuratze-jarduketak gauzatzeari dagokionez. Era berean, neurri horietan erabiliko dira <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieerako.

3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak

- **Haitzetako habitatak eta leizeak** (8130, 8210 eta 8310 EB KOD.)
- **Mendiko megaforbioak** (6430 EB KOD.)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Kiropteroak: *Miniopterus schreibersii*.
 - Hegazti-fauna harkaitzarrak: (Hegaztiak elementu gakoan ikus).



Xedek eta erregulazioak	
3. azken xedea	<p>Leizeekin, barrunbe karstikoekin eta harkaitzekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.</p> <p>Kiropteroen eta hegazti harkaiztarren populazioak kontserbatu, berreskuratu eta bideragarriak izango direla ziurtatzea, KBE-HBBEko harrera-ahalmena hobetuz.</p>
3.1 xede operatiboa	<p>KBE-HBBEko harkaitz-habitatak eta leizeak kontserbatzea, mehatxu-faktoreak txikiagotzea eta kontrolatzea, eta habitat horien inguruko ezagutza areagotzea.</p>
Erregulazioak	<p>3.E.1.- <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko 19.4 artikulua aplikatuta, KBEko mugetan eta horren afektazio-eremuetan ezin izango dira egin zaindu nahi diren ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzte-jarduerak.</i> KBE-HBBE Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroaren kasuan, bateraezintasun hori honako hauek zehazten dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • KBE-HBBEko harkaitz, hartxingadi, leize eta barrunbe karstikoen inguruekin zein zingirekin lotutako habitat-moten kontserbazio-interes handia -hasiera batean bertan daudelako ustia daitezkeen baliabideak-, baita edozein inpakturen aurrean duten hauskortasuna eta sentsibiltatea ere. • Elementu gako hau osatzen duten habitat guztiak flora- eta fauna-populazio mehatxatuak dauden Batasunaren intereseko habitatak dira, eta horrelako ingurunetan daude soilik. • Harkaitzak eta hartxingadiak lehen mailako paisaia-baliabidea dira EAEko testuinguruan. <p>Baliabide geologiko eta biologikoak erauzteko jarduerak debeku horretatik baztertu dira, baldin eta behar bezala justifikatutako xede zientifikoak badituzte eta organo kudeatzaileak berariaz baimendu baditu.</p> <p>3.E.2.- KBE-HBBE Babestutako Naturgunearen organo kudeatzaileak sarbidea debekatu ahal izango du eremu sentikorrenetan, bai eta pertsonak behar bezala seinaleztatutako zenbait bidexkatatik igarotzea ere, betiere hori aholkatzen ez duten egoera jakin batzuk gertatzen direnean (saiak estalarazteko garaia, zenbait habitaten kalteberatasuna areagotzea eta abar).</p> <p>3.E.3.- Saguzarren koloniak dituzten babeslekuak kontserbatu egingo dira. Horretarako, beharrezkoa denean, hainbat itxitura instalatuko dira saguzarrak bertatik igaro ahal izateko, baina, era berean, leizeetan ekintza bandalikoak saihesteko.</p> <p>3.E.4.- Barrunbe bat ixtea edo itxitura desegoki bat ordeztzea erabakitzen bada, saguzarrak eta aire-korronteen erregimena igarotzen direla ziurtatzeko moduan egingo da.</p>



	<p>3.E.5.- Saguzarrek kolonizatutako koben kasuan zehaztu beharreko irizpideak aintzat hartzen dituen barrunbeen berariazko kudeaketa planik ez dagoen bitartean, debekatuta egongo da, oro har, Purón ibaiko zenobiora sartzea, baita KBE-HBBEn dauden gainerako kobazuloetara sartzea ere. Barrunbe horietan, zientzia-edo ikerketa-jarduerak baino ez dira baimenduko, eta naturgunearen organo kudeatzaileak zehazten dituen baldintzekin bat etorri gauzatu beharko dira.</p> <p>3.E.6.- Debekatuta dago material exogenoak barrunbeetan sartzea edo uztea, naturalak edo artifizialak izanda ere; halaber, debekatuta dago karburua bidea argitzatzeko bitarteko gisa erabiltzea.</p> <p>3.E.7.- KBE-HBBEn, habitat horien kudeaketa ingurumen-balioak babestera, eta hala badagokio, lehengoratzera bideratuko da. Distribuzioa eta kontserbazio-egoera ezagutzera bideratutako jarduketak bultzatuko dira, eta habitat horiek zein lotutako flora- eta fauna-populazioak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak sustatuko dira.</p>
3.2 xede operatiboa	KBE-HBBEn dauden leize-kiroptero mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzea, kiropteroen babesleku nagusien ezaugarri fisikoak, biologikoak eta girokoak babestea (turismoak ustiatu gabeko leizeak, EB 8310 KOD), eta heziketa-jarduerak sustatzea gizakiek espezie horiekiko duten jarrera hobetzeko.
Erregulazioak	3.E.8.- KBE-HBBEko kiropteroak kontserbatzearen garrantzia zabaldu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzailea gizartea izango da, oro har, eta bereziki, eremuaren erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta are, haien jarduerak espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak: foruzaintzaileak, baso-sektorea, baserrien jabeak, espeleologoak, etab.

4. Hezeguneak

- **Habitats lenitikoak** (3140 eta 3150 EB KOD)
- **Habitat higo-zohikatzak** (7210*, 7220* eta 7230 EB KOD)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Anfibioak: Uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris*), Hegoaldeko apo pintatua *Discoglossus jeanneae* eta apo lasterkaria (*Bufo calamita*).

Xedek eta erregulazioak

4. azken xedea

KBE-HBBEko hezeguneekin lotutako Batasunaren intereseko habitatzen zein bertako flora- eta fauna-populazio mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.

Oro har, KBE-HBBEko hezeguneei aplikatuko zaizkie "Uraren erabilera"ri buruzko gidalerroak eta erregulazioak. Horiek guztiak dokumentu honetan jaso dira: "EAEko



Natura 2000 Sarea. Ibai, estuario eta hezeguneetako KBEak eta HBBEak kontserbatzeko neurriak. 1. dokumentua. Gidalerro eta erregulazio hidrikoak”.

Adierazitakoez gain, eta KBE-HBBEko hezeguneetan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatak eta espezieak behar bezala babesten direla bermatzeko, horien kontserbazio- eta eboluzio-egoerari lotuta datu zehatzik ez dagoen bitartean, debekatuta dago hezeguneetan KBE-HBBEren organo kudeatzaileak berariaz baimendu ez duen edozein jarduketa egitea.

Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio zehatz hauek aplikatuko dira:

<p>4.1 xede operatiboa</p>	<p>KBE-HBBEko hezegune nagusien distribuzioa, kontserbazio-egoera eta bilakaera ezagutzea.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>4.E.1.- Ibilguen ertzetako belar, sastraka, zuhaixka edo zuhaitz landaredian ez da aldaketarik egingo.</p> <p>4.E.2.- Debekatuta dago dolina inguruetan hazten den landaredia moztea edo erretzea, baita bertan ganadua pilatzea ere.</p> <p>4.E.3.- Gainazaleko eta lurpeko ur-hartune eta -aprobetxamendu berrien edo aurretik zeudenen aldaketen harira, kontserbazioaren xede diren KBE-HBBEko elementuetan izan ditzaketen ondorioak ebaluatuko dira aurrez, bakarrik edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta emari ekologikoen erregimena alda badezakete edo eremu hezei eta horien babes-eremuei eragin badiezaiekete. Ebaluazio horretan, besteren artean, teknikoki bideragarriak diren alternatibak aztertuko dira, eta emakida egin behar dela eta erabakitako irtenbidea ingurumen-mailan egokia dela justifikatuko da behar den moduan; orobat, ziurtatuko da ez dela afekzio nabarmenik eragingo kontserbazioaren xede diren elementuetan. Edozein kasutan ere, ziurtatuko da emarien erregimena bateragarria dela kontserbazioaren xede diren KBE-HBBEko habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoerari eustearekin edo hura berrezartzearekin.</p> <p>4.E.4.- Makina astunen erabilera, pistak egitea eta ibilgailuen joan-etorriak behar-beharrezkoak direnerako soilik mugatuko da, enklabe horien inguruetako lurzorua hidromorfikoa delako eta bereziki kalteberak direlako horiek zapaltzean edo lehortzean.</p> <p>4.E.5.- Hezegune bakoitzerako babes-perimetroa ezartzen ez den bitartean, 30 m-ko neurrikotzat joko da, hezegunearen mugen inguruan.</p> <p>4.E.6.- Ibilgu, ibaiertz edo ertzetan obrak edo jarduerak egitea, horien helburua edozein izanik ere, soilik baimenduko da baldin eta dagokion Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlanaren bidez justifikatzen denean ez duela ondorio kaltegarriarik ekarriko uren nahiz babestutako inguruaren kalitateari dagokionez.</p> <p>4.E.8.- Intereseko ur guneak kontserbatuko dira. Euri-ura besterik ematen ez duten puntuetan, urmaela ez lehortzera eta lohiz ez betetzera bideratutako zereginei eutsiko zaie. Putzu eta iturburuetan, berriz, nahikoa izango da aldian behin garbitzea.</p>



	4.E.9.- KBE-HBBEko hezeguneen distribuzioa eta kontserbazio-egoera ezagutzera zuzendutako jarduketak bultzatuko dira, eta habitat horiek zein lotutako flora- eta fauna-populazioak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak sustatuko dira.
4.2 xede operatiboa	KBE-HBBEko hezegune nagusiak babestea, aldeko kontserbazio-egoera lor dezaten edo horri eutsi diezaioten.
Erregulazioak	<p>4.E.10.- Abeltzaintza-kargak egokituko dira, habitat horien inguruan gainlarratzea saihesteko. Saiatuko da azienda ahalik eta gutxiena sartzen putzuak dauden eremuetara; horretarako, askak edo itxiturak eraikiko dira eta mantentze-lanak egingo. Edonola ere, ur-hartunek emari aske nahikoa utziko dute eremu horiei eusteko.</p> <p>4.E.11.- Hezeguneen inguruan ongarri kimikoak eta produktu fitosanitarioak erabiltzearen harira, '5. Ibai-sistema' elementu gakoaren 5.E.11 erregulazioa aplikatu behar da.</p>
4.3 xede operatiboa	KBE-HBBEn <i>Ichthyosaura alpestris</i> , <i>Bufo calamita</i> , <i>Discoglossus jeanneae</i> anfibio espezieen populazioak kontserbatzea, baita espezie horiek menpe dauden habitatak ere.
Erregulazioak	<p>4.E.12.- Oro har, debekatuta dago edozein anfibio espezie harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako espezieak hiltzeko, jazartzeko edo haiei enbarazu egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago euren habitatak suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atsedeen- edo elikatze-eremuak.</p> <p>4.R.13.- Naturgunearen organo kudeatzaileak KBE-HBBEn dauden anfibioen komunitateen habitata hobetzeko jarduketak sustatuko ditu, eta haiek mehatxu-maila handiena duten espezieekin arituko dira bereziki. Ildo horretatik, putzuak eta enklabe hezeak lehengoratu eta sortzeko ekintzak sustatuko dira, eta kokapen mesedegarrienak hautatuko dira zenbait alderdiri erreparatuz: espezieen distribuzioa, ezagutzen diren ugalketa-eremuak, mugitzeko ibilbideak, lursailen jabetza, aukera-irizpideak, etab.</p>

5. Ibai-sistema

- **Ibaiertzetako landaredia** (91E0* EB KOD.)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Ugaztunak: igaraba (*Lutra lutra*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*).
 - Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austrapotamobius italicus*).

Xedek eta erregulazioak



<p>5. azken xedea</p>	<p>KBE-HBBEko ibai-sistemaren erabateko funtzionaltasunari eustea, kontserbatzea eta berreskuratzea, intereseko espezie ugari hartzen dituzten habitatak garatzen diren esparru gisa, eta dibertsitateari zein prozesu ekologikoei eusten laguntzen duen korridore ekologiko gisa. Honako hau dakar:</p> <ul style="list-style-type: none"> - KBE-HBBEko ibai eta erreketako uren egoera ekologiko ona dela ziurtatzea. - Urarekin lotuta dauden habitatak eta fauna- eta flora-populazioak aktiboki kontserbatzea, eta ordezkari onena dutenak babestea. Heldutasunaren, egiturazko konplexutasunaren eta biodibertsitatearen alde egitea. - Ibai-korridore jarraitua lortzea, ibai-sistemaren dibertsitate ekologikoa eta funtzio bioklimatikoa ziurtatzen dituena.
<p>"Uraren erabilera"ri buruzko gidalerroak eta erregulazioak aplikatuko dira. Horiek guztiak dokumentu honetan jaso dira: "EAEko Natura 2000 Sarea. Ibai, estuario eta hezeguneetako KBEak eta HBBEak kontserbatzeko neurriak. 1. dokumentua. Gidalerro eta erregulazio hidrikoak".</p> <p>Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio zehatz hauek aplikatuko dira:</p>	
<p>5.1 xede operatiboa</p>	<p>Ibaiertzen konektibitatea ziurtatzen duen fauna mugikortasunerako korridore ekologiko jarraitua berreskuratu eta kontserbatu</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>5.E.1.- Ur-ibilguen ertzetako belar, sastraka, zuhaixka edo zuhaitz landaredian ez da aldaketarik egingo</p> <p>5.E.2.- KBE-HBBEren barnean dauden eraikuntzek –betiere mota guztietako hondakin-urek eremuaren sistema hidrológicoan eragina izan badezakete eta horien osaerak baimendutako gehienezko baloreak gainditzen dituenean- dagozkien arazketa sistemak instalatu beharko dituzte horretarako ematen zaien epean eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.</p> <p>5.E.3.- Debekatuta dago Calleja del Avellanaleko ibaiaren ibilgura ganadua sartzea.</p> <p>5.E.4.- Kokatzeko eta ibilbiderako beste aukerarik ez dagoelako KBE-HBBEn egin behar diren planak, programak eta azpiegitura-proiektuak (saneamendua, hornidura, pistak, bideak, etab.) baimenduko dira tokiko osotasunari eragingo ez diotela ziurtatzen bada, eta hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko prozedura ere gauzatuko da.</p> <p>Bazterrak babestu eta ezpondak egonkortzeko egiturak behar badira, ahal den teknikarik onena erabiliko da eta irtenbide "gogorak" ekidingo dira, esaterako, hormak edo hormigoizko harri-lubetak, baldin eta teknikoki aholka badaiteke. Egitura horiek inguruan txertatuko dira, eta ahal dela, bioingeniaritzako edo ingeniaritza naturalistikoko teknikak erabiliko dira.</p> <p>5.E.6.- Ez da onartuko ibilgua morfologikoki aldatzea dakarren jarduketarik, interes publikoko arrazoiak direla-eta salbuespenez</p>



baimendu behar direnak izan ezik. Kanalizazioak, defentsak, eraikuntza-dragatuak, sedimentuen mantentze-lanak eta birkokatzeak, eta edozein motatako betelanak barne hartzen dituzten planak, programak eta azpiegitura-proiektuak soilik baimenduko dira, baldin eta tokiko osotasunari eragingo ez diotela egiaztatzen bada, eta hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko prozedura ere gauzatuko da.

5.E.7.- KBE-HBBEren eremuan debekatuta daude interes ekologikoko aleak edo landaredi erriparioko masak osorik edo zati batean desagerraraztea dakarten baso-jarduketak. Inguru horretatik gertu egiten diren baso-aprobetxamenduetan, ziurtatu beharko da lotuta dauden Batasunaren intereseko habitatek eta espezieek aurrera egiten dutela eta kontserbatzen direla; gainera, ekidin beharko da uren kalitateari eragitea.

5.E.8.- KBE-HBBEren eremuan gauzatzen diren baso-aprobetxamenduetan, lanetatik babestuko da, gutxienez, jabari hidrauliko publikoari eta horren babes-zortasunari dagokion lurzerrenda. Ereku horretan, ez da zuhaitz-espezie aloktonorik landatuko, eta belardi naturalak kontserbatu eta hobetzeko jarduketak sustatuko dira. Ereku horietako landaketei dagokienez, lurzorua harrotzeko lanak saihestuko dira.

